

# PONENTZIA

NAZIO BATZORDEAK ONARTUA

**benetan  
garrantzitsuak  
diren gauzak**

lo esencial,  
lo más importante

**Aktibatu Lortu Zaindu**

2021eko azaroak 24-25  
Euskalduna Jauregia

**ELA**

**15. KONGRESUA**

[www.ela.eus/kongresua](http://www.ela.eus/kongresua)



# PONENTZIA

NAZIO BATZORDEAK ONARTUA



**benetan  
garrantzitsuak  
diren gauzak**

lo esencial,  
lo más importante

**ELA**

**Aktibatu Lortu Zaindu**

2021eko azaroak 24 · 25  
Euskalduna Jauregia

**15. KONGRESUA**

[www.ela.eus/kongresua](http://www.ela.eus/kongresua)



# AURKIBIDEA

<b>Aurkezpena .....</b>	<b>7</b>
<b>1. Eraldaketa sozial, ekologiko, demokratiko eta feministaren alde.....</b>	<b>8</b>
1. 2008tik hona aplikatutako austeritate politikak bertan behera uztea.....	9
2. Klima larrialdiaren aurrean eredu produktiboaren erabateko eraldaketa.....	11
3. Bizi jasangarria eta zaintza, erdigunean .....	12
4. Zerbitzu publikoei eta komuna denari balioa eman.....	13
5. Fiskalitate bidezko, solidario eta nahikoa .....	14
6. Pertsonen eskubideak kapitalaren ginetik.....	15
7. Lanaren balioari duintasuna eman, batik bat sektore prekarizatu eta feminizatuetan .....	17
8. Prekarietatearen kontrako borroka lehenetsi, bere hedadura guztian .....	18
9. Militantzia soziala areagotu mobilizazioak eta alternatibak bultzatzeko.....	19
<b>2. Estatu independentearen alde, kultura errepublikanoaren alde.....</b>	<b>20</b>
1. Erakunde soberanisten geldialdia .....	20
2. Errepresioa, benetako estatuaren irudia .....	20
3. Europa, aldarri sozial eta politikoetatik babesteko harresia .....	21
4. Estatuaren markoa hilda dago.....	22
5. Autonomismoa eta neoliberalismoa, txanpon beraren bi aurpegiak .....	23
6. Ezkerreko indarrek kemen handiagoa agertu behar dute nazio eta klase auzian .....	24
7. Estatu independente baten alde .....	25
8. Alde bakarreko prozesu soberanista sozialaren alde .....	26
9. Lan harreman eta gizarte-babeseko euskal markoaren alde.....	27
10. Abertzaleentzako garai erabakigarria Iparraldean .....	28
<b>3. Bestelako negoziazio kolektiboa lan prekarietateari behar bezala aurre egiteko .....</b>	<b>30</b>
1. Negoziatio kolektiboa kontraboteretik egiten jarraituko dugu .....	30
2. Antolakuntza lan aldarrietatik eraiki; negoziatio kolektiboa antolakuntzatik egin .....	31
3. ELA, lan munduko prekarioen sindikatua.....	32
4. Negoziatio kolektiboa, emakumeok pairatzen ditugun arrakalen aurkako arma .....	36
5. Langile-klasearen osasuna arriskuan jartzen dutenek garesti ordaindu behar dute .....	38
6. Gizartearen mesederako eraldaketa digitalaren alde.....	39
7. Beste eredu produktibo baten alde.....	41
8. Euskaraz egingo dugu lan .....	42



<b>4. Militantzia integrala, hobeto eta areago antolatua .....</b>	<b>44</b>
1. Afiliazioan eta hauteskunde sindikaletan hazkunderari eutsi .....	45
2. Enpresak eta sektoreak sindikalizatu indar-erlazioa hobetzeko.....	46
3. Militanteak antolatu lan eremuan eta eraldaketa sozialean eragiteko .....	48
4. Genero-ekitaterako plan estrategikoa sindikatu guztian garatu.....	49
5. Lan planifikatuagoa eraginkorragoak izateko eta hobeto militatzeko.....	50
6. Beste jauzi bat zerbitzu juridiko paregabeentzat.....	51
<b>5. Gure helburuekiko koherente diren aliantza eta sinergiak.....</b>	<b>54</b>
1. Soilik gehiengo sindikalak betetzen ditu aliantza estrategikorako baldintzak.....	54
2. Alderdi politikoengandik independentea den artikulazio sindikal eta sozialaren alde .....	55
3. Gure nazioarteko aliantza sindikalak .....	56



## AURKEZPENA

1. ELAk bere XV. Kongresua hasieran ezarrita zegoen datarekiko hainbat hilabeteko atzerapenez egingo du oraindik pairatzen ari garen pandemia medio. Larrialdi Osasun-larrialdiak, eta honekin batera sozialak zein ekonomikoak, gure bizimodua aurreikusi ez zitekeen moduan aldatu du. Agian aldatu den lehenengo kontua izan da gure bizirako baliagarria eta garrantzitsua denari buruzko gizarte guztiaren ulerkerak.
2. Horregatik, gure kongresuko leloa ez da inola ere apetzakoa. *“Benetan garrantzitsuak diren gauzak”* esatean laburbiltzen ari gara militante belaunaldi gisa garaiotan bizi izan dugun ikasketa, baita honi buruzko ondorioak atera ere. ELAren ekintza egokitzeko heldu beharreko deritzogun gaiei. Hauek guztiek osatzen dute “funtsezkoa, garrantzitsua” deritzoguna, langile jendearen eta klase herrikoen bizitza baldintzatzen baitute. *“Aktibatu, lortu, zaindu”*: era horretan egin nahi dugu, klase-kontzientzia eta langileen antolakuntza aktibatuz, borrokatuz lorpen konkretuak iristeko bizi- eta lan-baldintzetan, eta geure burua zaintzearekin batera bata bestearen ondoren datozen lorpenak zainduz.
3. Ponentziaren xedea da ikasitakoa jasotzea, baina batik bat programa bat laburbiltzea. Testu honetan agertuko dira:
  - a) Sindikatuaren helburu estrategikoak; hauek aldaketak egitea eskatzen dute eta epe laburrean baliabide berri jakin batzuk jarri beharra.
  - b) Erakundeak bereziki zaindu beharreko gai kritikoak, horiekin jokoan baitago bere jarraipena eta langile-klasearentzat baliagarri izaten jarraitzea.
  - c) Halaber, oraingo eta etorkizuneko eztabaidak aipatzen ditu; agian ez daude behar bezala garatuta, baina datozen urteetan berariaz landu beharrekoak izango dira.
4. Jakina, ponentziak eztabaida kolektibo bat piztu nahi du, zeinaren fruitu izango diren debate orokorreko proposamenak eta zuzenketak.
5. ELAko Nazio Batzordeak, zeinari dagokion testu hau idaztea, sindikatuko militante eta kongresukide guztiei dei egiten die taxuzko tarte bat har dezaten ponentzia hau irakurri, berari buruz gogoeta egin eta eztabaidatzeko. Gure erakundearen etorkizunak eta euskal langile-klasearen zoriak merezi baitute.



## ERALDAKETA SOZIAL, EKOLOGIKO, DEMOKRATIKO ETA FEMINISTAREN ALDE

6. Covid-19ak eragindako mundu krisia etorri zen krisi sistemikoa gertatzen ari zela (hau banaketari buruzkoa, soziala, ekologikoa, demokratikoa, zaintzarena, ekonomikoa eta migratorioa zen). Gainera, 2020ko maiatzean plazaratu genuen “Bidezko irteera baten alde. ELAren proposamen politikoa” dokumentuan eta gero “Krisiaren irteera feminista izango da” izenekoan esan genuen legez, aurreko hil eta urteetan aplikatutako politiken oinarria izan zen aurrekontu-doikuntza, lan- eta gizarte-eskubideen murrizketa eta zerga jaitsiera errenta altu, enpresa eta kapitalentzat. Ondorioak agerikoak ziren, baita hazkunde urteetan ere: desberdintasun sozialak eta pobrezia larriagotu ziren, batez ere emakumeek pairatzen dituztenak, eta hedatu egin zen prekarioa eremu guztietan.
7. Beraz, Covid-19aren aurreko bizimodua ez zen ideala. Horregatik, ordurako mobilizazio soziala puri-purian zegoen; sistemaren goitik beherako aldaketa galdegiten zen. Krisi ekologikoa eta benetako neurri eragingarriak hartzen ez zelarik, adierazpen eta goi-bilera handiusteak alde batera utzita, mundu mailako mugimendu zabala eragin zuten, batik bat gazteen aldetik. Mugimendu feministak bere indarra erakusten zuen kalean, eta erantzun masiboa izan zuen, esaterako martxoaren 8ko greba orokorretan. Giza eskubideak aldarrikatzen dituzten mugimenduak agertu ziren, esaterako Black Lives Matter. Pentsiodunen mugimenduak, zeinak mobilizazio indar handia erakutsi zuen Hego Euskal Herrian, espainiar estatuan pentsioen inguruko erabakiak baldintzatu zituen. ELAk, berriz, lan-gatazkak gehitzea eragin zuen, lan-baldintzak hobetzeko eta prekaritatearen aurkako borrokan. Aski da gogora ekartzea 2020ko urtarrilaren 30a, konfinamendua hasi baino hilabete eta erdi lehenago: Greba orokorra egin genuen, Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak deitua, enpleguaren, pentsio publikoen eta eskubide sozialen alde, eta aldaketa sozialerako soberaniaren beharra aldarrikatuz.
8. Hain zuzen egoera hori zela lehertu zen Covid-19aren krisi sanitario, sozial eta ekonomikoa. Haatik, sistema kapitalistak, ekozida eta heteropatriarkalak krisi honi eman zion erantzuna -aurrerago ikusiko dugunez- ez du aldaketarik ekarri. Aitzitik, esan daiteke sistemak krisia aukeratzat hartu duela aurrez abiatuta zeuden prozesuak -enpresen kontzentrazioa eta ekonomiaren finantziarizazioa- areagotzeko, zeintzuetan inbertsio-funtsek gero eta pisu handiagoa duten: era guztietako enpresa eta sektoreetako kapitalean sartzen dira, baita oinarrizkoetan ere. Honen adibide argia Europar Batasunean dugu: bere funtsekin Trantsizio Ekologiko eta Digitalizazioari buruz plazaratu dituen proposamenen atzean dauden megaproiektuak garatuko ditu. Proiektu horietako gehienak pandemia aurretik definitu ziren, eta 2008ko krisiaren ondoren hartutako erabakiekin bat datoz.
9. Izan ere, 2008ko krisia izan zitekeen modurik okerrenean itxi baitzen. Ezarri ziren politiken helburua izan zen bankuak salbatzea. Europar Batasunean horretarako izugarritzko dirutza publikoak jarri ziren. Horrek, zorraren ordainari emandako lehentasunarekin eta aurrekontuen hazkundeari ezarritako mugekin batera, zeintzuk arau fiskaletan bildu baitziren (defizit eta zor publiko mugak, erakunde guztien aurrekontuaren urteroko igoera), doikuntza politikak markatutako hamarkada ekarri zigan, aipatutako ondorioekin.
10. Kapitalaren eta biziaren arteko gatazkan gure erakundeek hartu duten rola ostera ere agerian geratu da Covid-19arekin. Aukeratu dute birusarekin bizitzea; osasunaren eta ekonomiaren arteko dilema faltsua aipatu da, adierazi gabeko hautua izanik heriot-



- zak eta kutsatzeak zirela ordaindu beharreko prezioa jarduera ekonomikoari ahal zen neurririk altuenean eusteko. Estrategia horren ondorioak ezagunak dira: Batetik, 5.000 lagun baino gehiago hil dira Hego Euskal Herrian koronabirusagatik (%40 zahar-etxeetan). Lehen lerroko milaka langilek bizia jokoan jarri dute, babes neurriak ez zegoelako eta gure agintarien aurreikuspen eza zein arduragabekeriagatik. Bestetik, argi geratu da bata bestearen atzetik etorri diren olatuek ezinbestean egoera ekonomikoa hondatzen dutela. Gaur duela urtebete baino 20.000 langabe gehiago dago, eta oso litekeena da adierazle horiek datozen hiletan okerrera egitea.
11. ELAk pandemiaren hasieratik esan zuen osasuna lehenetsi beharra zegoela, sektore eta interes ekonomiko jakin batzuen presioen gainetik. Eta horretarako hainbat erabaki hartu behar zela: oinarritzako ez ziren jardueren itxiera, irekita zeuden lantokietan segurtasun neurriak betetzea, derrigorrezko telelana posible zen kasuetan, osasun-sistema behar bezala hornitzea kutsatzeak saihestu eta arakatzeko, ordain ekonomiko nahikoak, behar adina denboraz, eragindako pertsona eta kolektiboentzat, kaleratzeen eta oinarritzako hornigaien mozketak debekatzeko, itxitako lokalen errenta edo maileguak ordaindu behar ez izatea, etab.
  12. Europa guztiak birusarekin bizitzea hautatu zuen. Baina ez munduko herrialde guztiek: 2021eko otsailean ezagutzera eman zen Aucklanden, Zelanda Berriko hiririk handienean, 2 milioi biztanle dituen metropoli-eremua osorik astebetetz konfinatzea erabaki zela, Covid-19 kasu bakarra agertu zelako. Zelanda Berriak ez zuen birusarekin bizi nahi; "0 koronabirus" estrategia, gaitza erauztekoa, aukeratu zuen. Aucklanden pertsona bakarra hil da Covid-19ak jota pandemia hasi denetik. Eta jarduera ekonomikoaren bilakaera Euskal Herrikoa edo Europako beste alde batzuetakoa baino askoz hobea izan da. Adibide honek erakusten du finka daitezkeela beste lehentasun eta politika batzuk, baita beste emaitzak lortu ere. Kapitala ala bizia: hori da dilema.
  13. 2021eko urtarrilean ELAk bat egin zuen MMEari jabetza intelektualeko eskubideei buruzko xedapenei uko egiteko galdatzen dion kanpainarekin, Covid-19ari lotutako txerto, funtsezko sendagai eta hornigai medikuei dagokienez. Pandemia betean, horiek eskuratzeko aukera munduko biztanle guztiei bermatu beharreko eskubidea izan behar da. Gainera, krisi sanitario, ekonomiko eta sozialetik ateratzekotan jende guztiak izan behar du txerto horiek azkar eta modu onean hartzeko aukera. Eskari honen aurka agertu dira potentzia ekonomiko nagusiak, esaterako EB, AEB, Japonia eta Australia, zeintzuk argi utzi duten euren helburua dela "beren" industria farmazeutikoaren etekinak defenditzea. Pandemian txerto eta tratamenduak garatzeko diru publikoa erruz banatu da (Health Policy Watch-en azterketa baten arabera, 113.000tik gora milioi dolar). Honek ere adierazten du sistemaren funtzionamendua zer nolakoa den: etekin ekonomikoak ongizatearen eta are jendearen biziaren gainetik kokatzen dira, nekropolitika instituzionalizaturaino helduz.
  14. 2020ko martxotik hona ELAk lan gogorra egin du egungo krisiaren irtenbidea duela hamar urte eman zena bezalakoa izan ez dadin. Sistemaren eraldaketa sozial, ekologiko, demokratiko, feminista eta antirrazista aldarrikatu dugu, hau baita alternatiba bakarra mugak dituen planeta batean bizitzeko moduko bizirik izango bada. Hauek dira gure proposamenak.

## **1. 2008tik hona aplikatutako austeritate politikak bertan behera uztea**

15. Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako gobernuak aurreko hamarkadan aplikatu zen antzeko aurrekontu-politika ezarri dute, eta honek ez ditu dauden beharrianak asetzen.



2021eko aurrekontuak -hauei buruz egindako txostenetan esan genuen bezala- 2020koen oso antzekoak izan ziren, hots, pandemia baten ondorio sanitario, ekonomiko eta sozialei aurre egin behar ez zitzaizkionekoak. Lehentasuna izan da gastu-maila zeharo mugatzea.

16. Egoera guztiz ezberdina da Europar Batasuneko beste herrialde batzuetan, non erakundeek asko gehitu dituzten politikak garatzeko baliabideak. NDFren txostenek diote espainiar Estatuak atal honetan azken postuetan dagoela. Bada, Eusko Jaurlaritzak 2020an aurrekontuan ezarritakoa baino soilik 200 milioi gehiago gastatu zuen (%1,3), eta Nafarroako Gobernuak, soilik 90 milioi gehiago (%1,9). Beraz, Euskal Herria pandemiari aurrekontuekin eman zaion erantzunari dagokionez, zerrendaren buketan.
17. Gainera, aurrekontuen hazkunde urri hori gertatu da Europar Batasunean 2020 eta 2021erako arau fiskalak etenda zeudenean. Honek esan nahi du erakundeek ez daukatela aitzakiarik: ez zegoen oztopo legalik aurrekontuak nahi beste gehitzeko. Argi geratu da austeritatea dela aurrekontu-politikarako euren hautu nagusia, ez inposizio bat. Hala Eusko Jaurlaritzak nola Nafarroako Gobernuak beren buruari urte hauetarako defizit muga ezarri diote, Pedro Sanchezen gobernuarekin egin dituzten akordioen bidez; gainera, hauek saldu dituzte gastua gehitzeko lorpen gisa, hain justu kontrakoa diren arren.
18. Bestalde, Hego Euskal Herriko erakundeek 2020 eta 2021eko diru-bilketan izandako jaitziera osatzeko zorra gehituko behar izan dute. Zorra epe laburreko estrategiaren zati bat izan daiteke, baina ezinbestekoa da zerga-erreforma bat, aurrerago ikusiko dugunez. Edonola ere, arau fiskalak soilik bi urterako etetea ez da nahikoa. 2008ko krisian gertatu zena errepikatzeko arriskua dago: ondorengo urteetako zorpetzea eta zorraren ordainari emandako lehentasuna -Konstituzioaren 135. artikulua erreferentzia medionazionala aitzakia bilakatzen dira doikuntza eta murrizketa agenda aplikatzeko.
19. Europar funtsekin areagotu egiten da transnazionalen aldeko eredu neoliberalak. "Mana berria", esan ziguten, "Marshall Plan berria". Ez da harrizketa nagusi diren eliteek diskurtso hori zabaltzea. Haatik, ezin da ulertu ezker politikoko edota mugimendu sindikal eta sozialeko kide batzuek funts horien ustezko onurak modu akritikoan ontzat ematea; ELAk eta beste erakunde batzuek salatu dutenez, saltzen den errealitatetik oso urrun baitaude.
  - a) Lehenik, funtsak baldintzatuta daude. Haien jasotzeko planak aurkeztean hitza eman behar da erreformak eta murrizketak ezarriko direla. Gainera, Bruselak erabakitzen dituen Europar Seihilekoko Gomendioak aplikatzeko dutela hitz ematen dute. Beraz, maileguak eta transferentziak jasotzeko murrizketak aplikatu behar dira (esaterako, pentsioen erreforma). Gainera, erabaki guztiak zentralizatuta daude Pedro Sanchezen gobernuarengan.
  - b) Bigarrenik, jasoko den diru kopurua esaten dena baino askoz apalagoa izango da. Gehienekora iritsia ere, espainiar Estatuak datozen urteetan 140.000 milioi euro jasoko lituzke. Baina 100.000 milioi itzuli beharko lituzke (kredituak itzuli eta Europako aurrekontuan programako transferentzien zati proportzionala jarri). Ez ote litzateke aukera hobea 100.000 milioi horiek beharrezko diren gizarte- eta ingurumen-politiketara bideratu eta murrizketarik aplikatu behar ez izatea?
  - c) Funtsak batik bat bideratuko dira multinazional handien (Petronor, Iberdrola) proiektuak (dagoeneko martxan direnak) finantziatzera, baita erakundeen proiektu arbuigarrietara (AHT, Nafarroako Ubidea...). Funts haien zati oso txikia izango

da benetan ikuspuntu sozialetik beharrezko diren proiektuetarako, eta horiekin zurituko da zatirik handiena.

- d) Horrenbestez, Covid-19aren krisiak argitara ekarri zuenean zerbitzu publikoetarako, gizarte-prestazioetarako eta pertsonen zaintzarako baliabide ekonomikoak gehitu beharra zegoela, funtsekin zorpetze publikoa eragingo da etekin pribatuetarako, eta zazpi urtez politika publikoen gaineko interbentzioa ezarriko da. Jokaldi bikaina, gauzak zeudenetan uzteko.
20. Hau ikusirik, premiazkoa da 2008ko krisian ezarritako austeritate politikak baztertzea; horrek, lehenik, eskatzen du aurrekontu-politika berehala aldatzea, gure erakundee-tako aurrekontuak nabarmen gehituz.
21. Austeritate-politiken aplikazioa eta lan- eta gizarte-eskubideen murrizketak ezin dira izan Europako funtsak jasotzeko baldintza. Gainera, araudi berri bat egin behar da zerbitzu publikoak zein estaldura sozialak indartzeko izan daitezen, eta publikotik sustatzeko benetako trantsizio ekosoziala, interes kolektiboak enpresen eta kapitalaren interesen gainetik jarritz.
22. Halaber, europar eremuan eta estatu mailan konstituzionalizatu nahi izan den aurrekontu-markoa ere hautsi behar da: defizit eta zor muga eta gastu-araua bertan behera utzi; Sei hileko Europarrean ezarritako Europar Batasunaren zaintza eta kontrol mekanismoak kendu, eta atzera eragin Konstituzioko 135. artikulua erreformari, baita hortik eratorritako aurrekontu- eta finantza-egonkortasun legeei ere.
23. Halaber, argi dago Europar Batasunaren lerratze gero eta argiagoak eraman behar gaituela marko hori zalantzan jartzeaz gainera alternatiba bat bilatzera, Euskal Herriko eta Europako beste leku batzuetako beste erakunde batzuekin aliantza eginez. Gure azken ponentzian hainbat ondorio atera genuen Grezian gertatu zenaz, noraino zegoen prest Europar Batasuna bere esku zituen tresnak gobernua diziplinatzeko erabiltzeko. Ondorio horien artean, eurotik irtetearen xantaiari aurre egiteko bitarteko guztiak prestatu beharra. Benetako alternatiba landu eta sozializaturik ez dagoen artean ez da erraza izango Europaren xantaiari eustea.

## **2. Klima larrialdiaren aurrean eredu produktiboaren erabateko eraldaketa**

24. Gure azken ponentzian aipatu genuen ezinbestekoa zela ekoizpen, banaketa eta kontsumo sistema aldatzea, baliabideen erabilpena murriztearen beharra ikusirik. Salatu genuen Pariseko Akordioaren puntu nagusiak lausoak zirela. Aurten ere posizio horri eusten diogu. Horregatik, premiazkoa da neurriak hartzea jendartean beharrezko eta ingurumenarentzat jasangarri diren jarduerak garatzeko, eta murrizteko edo bertan behera uzteko helburu horietara ez daramatenak. Haatik, aurrera egin ordez berotegi-efektuko gasen isuriak duela bost urte baino handiagoak dira. 2020ko konfinamenduak erakutsi zuen biziaren erreproduktzioarako funtsezkoak ez diren jarduerak direla gehienbat aldaketa klimatikoa eragiten dutenak.
25. Lurraren muga fisikoak begi-bistakoak dira. Horregatik, lehenbailehen horren araberrako aldaketa eragin behar da eredu produktiboan; gehiengo sozialaren zerbitzura izango den eredu, zeinetara iritsiko garen bidezko trantsizio baten ondorioz, eta honek langile-klasearen beharrianak aintzat hartu behar ditu. Orain hobeto dakigu sindikatuek ere jauzi bat egin behar duela lantokietan gatazka ekologikoa eta klase-gatazka



- lotzerakoan. Hau erronka handia da ELArentzat. Ordezkariei prestakuntza eman behar zaie beren enpleguak defenditzerakoan alternatiba jasagarriak proposa ditzaten.
26. Eredu produktiboaren eraldaketak erakundeen aldetik bultzada nabarmena eskatzen du, baita ekonomikoa ere. Eusko Jaurlaritzari eta Nafarroako Gobernuari galdegin diegu Funtzak sor ditzatela, 2.300tik gora milioi euroekin (Alemanian sortu den funtsari gurean dagokiona), enpresa eta sektore estrategikoen kontrol publikoa bermatze aldera. Funtz horien helburua litzateke sustatzea jendartean beharrezko eta ingurumenarentzat jasagarri diren proiektuak. Ekoizpen eredu bateragarri izan behar da planetaren mugekin; horregatik, funts horiek ekonomia zirkularrari lotutako sektoreetan inbertitu behar dira, beti ere langileen baldintzak bermatuz.
  27. Eredu produktiboaren aldaketaren oinarrietako bat izan behar da ekonomia birtokiratzeari. Kontsumitzen ditugun produktu gehienek milaka kilometro egiten dituzte. Kontsumo-ondasunen gehiegizko mugikortasun horrek berotegi efektuko gasen isuria eragiten du, ingurumeneko eragin gogorra ekoizten diren herrialdeetan eta, sarri, baita baliabide naturalen espoliazioa ere. Material hauek ondoren milioika tona hondakin bihurtzen dira, zeintzuk bertan kudeatzeko gauza ez garen. Gainera, industria deslokalizatu hauek lan egiten duten pertsonen, eurretako asko emakumeak, ia esklabotza- ren moduko baldintzak pairatzen dituzte.
  28. Covid-19aren krisiak agerian utzi ditu nazioartratze ekonomikoaren ulerkera jakin batek dituen gabeziak, esaterako oinarritzko ekipoak ekoizterakoan (besteak beste, industria medikuaren ingurukoak). Hain zuzen, ezinbestekoa jarduera estrategikoak gure lurraldean kokatuta izatea. Horrek ekarri behar du globalizazio neoliberalaren mantra baztertua, zeinaren egitura funtsezkoak diren Mundu mailako Produkzio Kateak (hauen bidez transnazioalek ekoizpenaren faseak lekuz aldatu eta tertziarizatu egiten dituzte lan- edo ingurumen-babes ahulagoa duten munduko beste eskualde batzuetara), baita belaunaldi berriko Merkataritza Itunak ere (esaterako, TTIP, non gauzatzen diren Merkataritza- eta Inbertsio-Agendak; hauen xedea da liberalizazio, pribatizazio eta desarautze neoliberalaren baldintzak neurrigabe areagotzea).
  29. Paradigma aldaketarekin batera etorri behar da berehala gelditzea azpiegitura handien garapena, esaterako AHT edo Nafarroako Ubidea, dirutza publiko izugarria xahutzen baitute, eta ikuspuntu sozial zein ekonomikotik errentagarriak ez izateaz gainera kalte handia eragiten baitituzte ingurumenean.

### 3. Bizi jasagarria eta zaintza, erdigunean

30. Sistema ekonomikoaren oinarria gizonezko eredu bat da, zeina bere enpleguan traba egingo dion ardura orotik libre dagoen eta beharizan guztiak asebeteta dituen; ezkutu egiten da horrela gehienbat emakumeek bizitzaren fase guztietan egiten dituzten zaintzen beharra. Alabaina, izaki interdependente eta ekodependenteak gara.
31. Pandemiak erakutsi du funtsezkoa zer den: bizi jasagarria eta zaintza lanak. Hau ezin da gelditu. Hala ere, lan horiek ikusezinak dira, gutxietsita eta prekarizatuta daude. Lan eremuan kasu askotan pribatizatuta daude, eta gehienez emakumeek etxean egiten dituzte, doan, modu prekarioan, kasu batzuetan esklabo gisa ere. Esklabo lana da emakumeek egiten dutelako; ia beti arrazializatuak dira, lanaren banaketa sexual eta arrazialaren baitan.
32. Erakundeek lehiakortasunaren diskurtsoari eman diote lehentasuna eta enpresen esanetara jarri dira. Zaintza bigarren mailako zerbait balitz bezala hartu izan da, eremu

- pribatura mugatua, prekarizatua eta batik bat emakumeen gain. Beharrian sozialak osatu orde ez eremu honetan ere enpresa pribatuen negozioa sustatu da, oso negozio errentagarria. Politikek kutsu oso familiarista dute; hala ikusi da adin txikikoen zaintzari buruz ez baita neurririk hartu ikastetxeak itxi direnean edota Covid-19ak eragindako berrogeialdian.
33. Ondorioak atera behar ditugu. Lehentasunak aldatu. Bizi jasagarria eta zaintzak lehenestekotan erakundeek helburu horrekiko politikak egin behar dituzte, dagokien ardura beren gain hartu eta zinez engaiatu, purple washing (irudi garbiketa edo martxoaren 8ko adierazpen politikoki zuzenetatik harago, izan ere, bitartean politikak kontrako norantzan baitoaz.
34. Zaintza lana duintzeko honakoak egin behar dira:
- a) Legez bermatu menpekotasun egoeran dauden pertsona orori zor zaion arreta eta zaintzarako eskubidea, sistema publiko, unibertsal, doako eta kalitatezko baten bidez.
  - b) Zaintza lanari duen balioa aitortu, kalitatezko lan baldintzak eskainiz, lanaren prekarizazioa eta klase, genero edo migrazio-estatusaren arabeko segmentazioa ekidinez.
  - c) Kalitatezko arreta bermatzeko ratio eta baldintzak finkatu.
  - d) Zaintza eta osasun eremuetan azpikontratatuta dauden sektoreak publikatu, enpleguaren subrogazioa eta kontsolidazioa ziurtatuz eta Hego Euskal Herrian 10.000 lanpostu sortuz.
  - e) Etxeko langileen baldintzak gainerako beharginek dituztenekin parekatu (Gizarte Segurantzako Erregimen orokorra, Langileen Estatutua eta lan osasuna).
  - f) Lanaldia murriztu.
  - g) Lanaldia murrizten den kasuetan edo zaintzarako eszedentzia eskatzen denerako langabezia prestazioa edo antzeko bat jasotzeko eskubidea aitortu.
  - h) Etxeko lanetan denbora berrantolatu eta erantzukidetasuna ezarri.
  - i) Atzerritarren Legea indargabetu.

#### **4. Zerbitzu publikoei eta komuna denari balioa eman**

35. Aspaldiko kontua da publikoa txarresten duen praktika eta diskurtso politikoa. Saldu nahi izan digute pribatuak hobeto funtzionatzen duela, merkeagoa eta arinagoa dela. Areago, esku pribatuak posible egingo duela publikoak ezin duena ere. Honen adibide, pensio-sistema publikoaren kontrako oldarraldia: esaten da ez dela jasagarria eta bide batez animatu nahi gaituzte sistema pribatu osagarrietan "inbertitzera". Gauza bera gertatzen da aseguru pribatuak proposatzen dituztenean osasungintza publiko orokor eta unibertsalaren ordezkotza gisa. Badirudi pribatua dena ez dagoela finantziatu beharrik.



36. Diskurtso horiek mozorrotu egiten dute jendearen beharrekin aberasteko nahia. Bost axola die gizarteko zati handi bat babes sozialik gabe uztea; halako babesaren soilik orokorra izan daiteke zerga eta zerbitzu publikoen bidez.
37. Agerian geratu da ere Euskal Herrian komuna dena sustatzeko potentzial handia dagoela. Konfinamenduan jendearen eguneroko beharrei aurre egiteko sortu ziren sare herritarretan islatu zen elkartasuna da sare komunitarioak dituen aukeren adibide bat.
38. Publikoa sendotzea behar-beharrezkoa da. Alabaina, ELAk osasun Osakidetza eta Osasunbidea sistema publikoen egoeraz egin duen analisisan egiatzatu zen Europa mailan azken postuetan gaudela osasunera bideratzen den aberastasunari dagokionez; biztanleko askoz langile gutxiago dugula Europar Batasuneko beste herrialde batzuetan baino; lehen arretako sistemak ez duela behar beste baliabiderik, edo prebentzio politika oso kaskarra dela. Argi dago inongo osasun sistema publikorik ez zegoela prestatuta Covid-19ari erantzun egokia emateko, baina azken hamarkadako aurrekontu murrizketek eragin dute Osakidetza eta Osasunbidea okerrago egotea, baliabide urriagoekin eta prekaritate handiagoarekin (aldi baterako enplegu tasa Osakidetzan eta Osasunbidean %50etik gorakoa da).
39. Antzeko zerbait esan daiteke hezkuntza sistemaren egoeraz, zeinak aurrekontu murrizketa politikaren ondorio latzak pairatu dituen. Izan ere, Osasuneko eta Hezkuntzako inbertsio publikoa Europar Batasuneko azken postuetan dago, arlo horietara bideratzen den aberastasunaren portzentajearen arabera.
40. Noski, publikoa indartzeko beharra ez dagokie soilik osasunaren, zaintzaren edo hezkuntzaren eremuei. Sektore estrategikoen pribatizazioak, esaterako finantzak (lau lurraldeetan Aurrezki Kutxak desagertu ziren, Kutxabank bankarizatu eta Caixak CAN bereganatu zuen), telekomunikazioak (Euskaltel edo Retena), energia, ikerkuntza... botere publikoei kendu egin dizkie politikak garatzeko beharrezko diren oinarritzko tresnak.
41. Lankidetzaren Publiko-Pribatua delakoa da azken mugarrira pribatizazioan, publikoa pribatuaren menpe jartzeko bidean, etekin pribatuaren finantziario publikoan. Kapitalaren amarru hau maila gorenera iritsi da europar funtsen kudeaketa mekanismoekin, Suspertze eta Eraldaketa Ekonomikorako Proiektu Estrategikoekin (erdarazko izenaren arabera PERTEak), adibidez Petronorrek eta Iberdrolak eratu eta gidatuak; hauetan publikoak laguntza eta zurriz hutsa besterik ez da dirutza publikoak, gure zergekin ordaindutako kopuru izugarriak, bideratzeko.
42. Lan ildo honi aurre egiteko arlo publiko indartsua behar dugu sektore estrategiko guztietan, beharrezkoa izanez gero enpresak publikatzeraino. Ekonomia eta finantzak kontrolpean jarri behar dira gehiengo sozialen interesen esanetara egon daitezela.

## **5. Fiskalitate bidezko, solidario eta nahikoa**

43. ELA aspaldiko urtetan aitzindari izan da zerga-sistemaren injustizia salatzerakoan eta aurrekontuak handitzeko zerga-politikaren goitik beherako aldaketa eskatzerakoan. Hau da modu bakarra baldin eta kalitatezko zerbitzu publikoak nahi baditugu (osasuna, hezkuntza, zaintza...), prestazioak bermatu (pentsioak, langabezia, DSBE edo EB...), oinarritzko eskubideak bermatu, esaterako etxebizitza izatekoa, kalitatezko enpleguaren sustapena gizarteak behar dituen eta ingurumen aldetik jasagarriak diren jardueretan (eredu produktiboaren eraldaketari aurre eginez), ekonomia birtokiratzea edo lanen eta hauek egiteko erabiltzen den denboraren banaketa.

44. Premiazkoa da gure erakundeek biltzen duten dirua gehitzea. Izan ere, gure diru-bilketa maila (BPGaren %32 inguru EAEn eta Nafarroan) europar batez besteko maila (%41) baino askoz ere apalagoa da. Honetara iristeko urtean 6.000 milioi euro gehiago bildu beharko litzateke EAEn eta 2.000 Nafarroan. Beraz, diru-bilketa hobetzeko aukera handia dago.
45. Gainera, Ekonomia-Iltuna eta -Hitzarmena (zergak biltzeko ahalmena ematen diguten tresnak) ez dira baliatu bidezko zerga-sistema taxutzeko. Gaur diru-bilketaren zamarik handiena lan-errenten gain dago:
- Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan (PFEZ) aitortutako errentaren %90 lan-errentetatik dator.
  - PFEZean lan-errentek batez beste urteko 25.000 euro aitortzen dute; aldiz, jarduera ekonomikoetako zergadunek (enpresa zein profesionalak), 15.500.
  - Sozietateen Zergan enpresen erdiek galerak edo zero etekina aitortzen dituzte (beti, ez soilik krisialdietan).
  - Sozietateen Zergan EAeko enpresa handiek etekinen %7,6 baino ez dute ordaintzen. Nafarroan, %13. Biak ere oso kopuru txikiak dira. Enpresa batzuek, esaterako Petronorrek, etekin mardulak izan arren zenbait urtetan ez dute euro bat bera ere ordaintzen.
  - Azken hamarkadetan zerga jaitsiera handia egin zaie errenta altuei, enpresen etekinei eta kapitalari (PFEZean, Sozietateetan eta Ondarean).
46. Horregatik, ELArentzat estrategikoa da fiskalitate justuago baten eta sarrera publikoak gehitzearen alde borrokatzea. Ez da errealista uste izatea zerbitzu publikoen kalitatea edota gizarte-prestazioak hobetuko direnik fiskalitatean aldaketarik eragin ezean. Lehenetasuna izan beharko litzateke iruzur fiskalaren jazarpena, soldatapeko ez diren errentak gehienez lau urteko epean ikuskatuz, baina ogasunek iruzurgileekin elkar hartzen dute.
47. 2020ko maiatzean 28 neurri konkretu proposatu genituen krisiari eman beharreko irteera bidezkoa izan zedin: Aldaketak enpresen etekinen gaineko zergan, Ondarearen, aberastasunaren eta fortuna handien Zergan, eta PFEZeko errenta altuen zein kapitalaren tratamendua. Zerga batzuetan berariazko errekarquak ere aldarrikatu genituen. Proposamen horiek aplikatuz gero, zeintzuk Kongresu honek babesten dituen, EAEn 3.750 milioi gehiago bildu litezke eta Nafarroan 900 gehiago. Bizi dugun krisia hain larria da, non honelako neurriak Ameriketako Estatu Batuetan hartzen ari diren, Joe Bidenen gidaritzapean, eta are Nazioarteko Diru Funtsaren agendan ere sartu diren.
48. 2021ean urrats handiak egin ditugu sozializazioan eta mobilizazioan fiskalitatearen auzia eztabaida publikoaren erdigunean kokatzeko; erakundeak eta indar politikoak interpelatu ditugu aldarriok bere egin ditzaten eta zerga-erreforma bidezko eta nahikoa lan-agendako ardatz bilaka dezaten. Datozen urteetan behar dugun aldaketa fiskal hori lortzeko presioa eragingo dugu.

## 6. Pertsonen eskubideak kapitalaren ginetik

49. Gero eta migrante eta errefuxiatu gehiago dago munduan. Datu ofizialen arabera, zeintzuek ez duten errealitate osoa islatzen, egoera honetan dagoen biztanleriaren



- portzentajea hazten ari da. Gainera, migratu eta errefuxiatuen eskubideen urraketa, migratzeko eskubidearen ukapenetik hasita, Europar Batasunaren eta beste herrialde aberastu batzuen eguneroko politiketan gauzatzen da.
50. Aurreko Kongresu Konfederalean onartu genuen ebazpen batean migratzeko eskubidea errespeta zedila galdegin genuen, eta pertsona guztiek, edozein dela ere euren jatorria zein egoera administratiboa, eskubide berberak izatea. Kongresu honetan aldarri honi eutsi egin behar diogu; horretarako, besteak beste, Atzerritarren Legea indargabetu behar da, erroldatzeko eta gizarte-prestazioak jaso ahal izateko abusuzko eskakizunak kendu, etxebizitza bat alokatzeko aukera soilik azalaren kolorea medio ukatzen dutenak salatu, edota banku-kontu bat irekitzeko bete ezineko baldintzak ezartzea ere.
  51. Egoera administratibo irregularrean egoteak ere lan merkatua egituratzen du: paperak dituztenak eta ez dituztenak bereizten ditu, eta azken hauek lan baldintza okerragoak izatera zigortzen ditu, baita lan esplotazio gogorragoa pairatzera ere. Egoera hau batik bat gertatzen da emakume migratu eta arrazializatuen kasuan, zeintzuek zaintza sektorean -eta zehazki etxeko lanetan- oso presentzia handia duten.
  52. Krisialdiak baliatu ohi dira kapitalaren esku dirutza handiak jartzeko. 2008ko krisia bankuak erreskatatzeko probestu zen; Covid-19arena, berriz, multinazional handien proiektuak finantzatzeko. Inoiz ez da jendea erreskatatzeko une egokia; sekula ez dira pertsonen eskubideak kapitalaren gainetik lehenesten.
  53. Ezarri diren politikek desberdintasuna, pobrezia eta bazterkeria soziala modu iraunkorrean areagotu dute. Joera hau gertatu da bilakaera ekonomikoa edozein izanda ere. Ondorioz, bizi dugun egoera egiturazkoa da, honako ezaugarriekin:
    - a) Langabezia tasa altuak
    - b) Behin-behinekotasun eta prekarietate handia
    - c) Gazteenak dira kaltetuenak
    - d) Emakumeak egoera estruktural okerragoan
    - e) Aberastasun maila handiagoak pobrezia eta bazterkeria sozialaren hedapenarekin batera gertatzen dira
  54. ELAk benetako ezkutu sozial iraunkorra galdatzen du, gutxienik honako osagaiekin:
    - a) Pentsio-sistema publiko duina. ELAk pentsiodunen mugimenduaren aldarriak bere egiten ditu, besteak beste 1.080 euroren gutxieneko erretiro-saria eta Zapa-teroren eta Rajoyren erreformatako alde atzerakoiak indargabetzea (erretiro adina 67 urtera atzeratu izana, pentsio berrien murrizketa hainbat bidetatik, eros-ahalmenaren bermea kendu izana, Iraunkortasun Faktorearen ezarpena...).
    - b) Langabezia-prestazioak gutxienik Lanbidearteko Gutxieneko Soldata adinekoak izatea, edozein dela ere kotizazio aldia. Prestazioa jasotzeko eskubidea lanik gabeko aldi osoan izatea.
    - c) Diru Sarrera Bermatzeko Errenta (DSBE) eta Errenta Bermatua (EB) aldatzea Eskubide Sozialen Kartak sustatu zuen Pobrezia eta Gizarte-bazterkeriaren kontrako Herri Ekimen Legegilean (HEL) jasotako proposamenak onartzeko (DSBE eta Ebren zenbatekoaren hobekuntza nabarmena, eta alokairu sozialeko etxebizitza izateko aukera bermatu behar duten guztiei); hau ukatu egin zuen



aurreko Nafarroako Gobernuak gastua gehituko zela argudiatuz (hau jakina da). EAEn 50.000tik gora lagunek eman zioten legegintza ekimenari babes; hala ere, EAJk, PSEk eta PPK legegai gisa onartzearen kontrako botoa eman zuten.

- d) Alokairu sozialeko bizilekua izateko eskubide bermatua behar duen edonorentzat. Etxebizitza Lege bat egitea besteak beste ezartzeko errenten gehieneko prezioa ordaintzeko modukoa izan dadin. Etxebizitzaren funtzio soziala lehenetsi egin behar da espekulazio-ondasun izaeraren gainetik.
- e) Elikatzeko eta oinarrizko hornigaiak (argindarra, ura, gasa, komunikazioak...) izateko eskubidea egoera sozial zaugarrian dauden guztientzat. Hornikuntza etetea eta ohiko bizilekutik kanporatzea debekatu behar da ordaindu ez izanaren arrazoia ekonomikoa denean.
- f) Denboraren berrantolaketa eta erantzukidetasuna etxeko lanetan.
- g) Pertsona guztien erregularizazio administratiborantz jotzea erroldatzeko aukera bermatuz. Jende guztiari eskubide berberak bermatu, jatorriagatiko diskriminaziorik gabe.
- h) LGTBIQ+ pertsona guztientzako eskubide berdintasuna eta diskriminaziorik eza, hala lan eremuan nola gizarteko gainerako espazioetan.

## **7. Lanaren balioari duintasuna eman, batik bat sektore prekarizatu eta feminizatuetan**

- 55. Covid-19aren krisiak agerian utzi du zein lan den oinarrizkoa bizia sostengatzeko; zein lan den utzi ezinekoa: Osasungintza, zahar-etxeak, etxez etxeko laguntza, zerbitzu sozial eta publikoak oro har, etxeko langileak, garbitzaileak, elikagaien sektoreko langileak, etxean egiten dugun zaintza lana, garraioa, sortu diren sare herritarrak... Eta ez da kasualitatea lan hauetako gehienak prekarizatuta, feminizatuta eta arrazializatuta egotea, hala lan merkatu formalean nola hortatik kanpo, nahiz eta eurak gabe bizia ezinezkoa den.
- 56. Lanaren balioa aldarrikatzeko unea dugu, batez ere oinarrizko lan horiena; arbuiatu egin behar dugu azken hamarkadetan izan diren etengabeko lan eta negoziazio kolektiboaren erreformatan ezarritako eskubide murrizketak ekarri duen prekarietatea. Erreforma hauek eragiten dute, esaterako, estatu mailako lan-hitzarmen batek negoziazio kolektiborako eskubidea galaraztea gure lurraldeetan; hitzarmenei iraungitze epea ezarri diete; kaleratzea erraztu eta merkatu dute; EREen kontrol publikoa kendu dute; erraztu dute hedatzea aldi baterako enplegua, lanaldi partziala edota enpresaren nahierara ezarritako lan malgutasuna... Erreforma horiei atzera eragitea beharrezkoa eta premiazko kontua da.
- 57. Soldatei dagokienez, azken urteetan eros-ahalmenak galera orokorra jasan du, batik bat erdi eta behe mailako soldatetan. Soldata ezberdintasuna asko areagotu da. Gainera, errenta orokorrean lan errentek duten zatia urritu egin da eta, ondorioz, kapital errentak aberastasunaren banaketan irabazi egin dute. Beraz, soldaten eros-ahalmena oro har hobetu egin behar da, batez ere apalenen kasuan. 1.300 euroren gutxieneko soldata finkatu beharra dago, eta soldata arrakala gainditu, nahiz balio bereko baina ordainsari desberdineko lanen arteko desberdintasunak.



58. Bestalde, 102 urte bete dira Bartzelonan Canadiense lantegiko greba izan zenetik; hari esker espainiar estatuan 40 orduko lanaldia ezarri zen. Guztioi zer pentsatua eragin beharko liguke ordutik hona teknologiak eta produktibitateak izan duen bilakaera gorabehera, lanaldiaren legezko erreferentzia oraindik ere ordu kopuru bera izateak. Hala-ber, eragin beharko luke bultzada sindikal berri bat lanaldia murriztearen alde egiteko, aberastasuna banatu eta enplegua sortzeko mekanismo gisa. 1999an greba orokorra egin genuen 35 orduko lanaldiaren alde. Sektore eta enpresa batzuetan (batik bat arlo publikoan) lortu genuen, baina gogoz ekin behar diogu berriro 35 orduko lan astearen helburuari, 32 orduen bidean.

## **8. Prekarietatearen kontrako borroka lehenetsi, bere hedadura guztian**

59. Prekarietatea da pertsona eta kolektiboek pairatzen duten bizi-, enplegu- eta lan-baldintzen degradazioa, zeinak bizi-proiektu pertsonal emantzipatuak egiteko aukera eragotzi eta eskubide herritar eta politiko beteak askatasunez gauzatea galarazten duen. Prekarietateak mendeko egoera, zaurgarria eta hauskorra dakar berarekin bizi-proiektu bete bat izateko beharrezko diren dirusarrera eta ondasunak lortzerakoan, eta baztertuta geratzeko arriskuan jartzen du.
60. Prekarietateak hainbat alderdi ditu: enplegu-baldintzetako prekarietatea (enplegu egonkorraren bermerik ez eta, ondorioz, sarrera iraunkorrek izateko baldintzetan ere ez); laneko prekarietatea (lanaren antolakuntzaren, produkzio- edo zerbitzu-prozesuaren erritmo eta baldintzen degradazioa, osasunerako arriskuak edota laneko istripu eta gaixotasunak); prekarietate ekonomikoa (soldata-, pentsio-, langabezia prestazio-, beste prestazio-sarrera urriak, zeintzuk beharizan pertsonalak asetzea eta gizarteratze onargarria eragozten duten); gizarte-eskubideen prekarietatea (adibidez, etxebizitza izateko edo zaintza zerbitzu publiko, unibertsal eta doakoa jasotzeko eskubiderik ez izatea), askatasun eta berdintasun prekarietatea (emantzipaziorik ez izan eta beste talde edo pertsonen menpe egotea, behar egoeragatik edota harreman sozialetan benetako desberdintasun batek eragindako menpekotasun sozial egoera medio, esaterako emakumeek gizarte patriarkal honetan jasaten dutena).
61. Prekarietatea ordena sozialaren eta indarrean diren harreman sozialen ondorio bat da, zeina eragiten duten produkzio-harreman kapitalistek, genero eta belaunaldi arteko tratu asimetriak sortzen dituen ordena kultural patriarkalak, eta legediak desberdintasun errealak zuzendu ez izanak edota krisi ekologikoaren ondorioak baliabide gutxien dutenek jasateak.
62. Prekarietateari begiratu behar diogu fenomeno konplexu gisa, enplegutik harago doana. Funtsean fenomeno kolektibo eta estruktural bat da, sistema kapitalista, patriarkal, ekozidaren arau eta harreman sozialen fruitu... Hari heltzeko analisi eta praxi orokorra beharrezkoak dira.
63. Horregatik, prekarietatearen aurkako ELAren borroka negoziazio kolektiboaren espazioan garatzen da, baina politika publikoak errotik aldatzeko borrokara ere hedatzen da. Bizi-proiektu emantzipatu bat egin ahal izateak eskatzen du, adibidez, gazteek alokairu sozialeko etxebizitza izateko bermea, edota emakumeen biziaren kontrako bortizkeria matxista erauztea. Prekarietatearen kontrako gure borrokak hori guztia esan nahi du eta horregatik ezinbestekoa da, hurrengo puntuan aipatuko dugun moduan, gure militanteek kutsu sozial argia izatea.

## 9. Militantzia soziala areagotu mobilizazioak eta alternatibak bultzatzeko

64. Krisi pandemikoa aukera ezin hobea da "shock doktrina" delakoa aplikatzeko: botere politiko eta ekonomikoak bat egiten dute ziurgabetasuna eta beldurra baliatuz jendeak beste egoera batean onartuko ez lituzkeen neurriak aplikatzeko. Aldi berean eragile sozialak indargabetzeko saioa egiten da, doikuntza politikei babes eman diezaieten, horretarako itun sozial zabalaren eta elkarrizketa sozialaren inposizioa baliatuz.
65. Gure bizi baldintzak lan egoeraren baitakoak ez ezik lantokietatik kanpo hartutako erabaki politikoaren arabera dira; horregatik, ELAren proiektuko ildo estrategikoko bat da eraldaketa soziala edo gizarte eredu justuago baten aldeko borroka.
66. Bide horretan beharrezkoa da aplikatzen ari diren politikak azaldu eta salatzea, baita alternatiba argiak proposatzea ere. Halaber, botere sozial eta sindikal hori indartzeko, aliantzak behar ditugu, Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartaren modukoak; ELAK honekiko konpromiso irmoa du. Azkenik, mobilizazio soziala eta alternatibak sustatu behar dira.
67. Bizi dugun kapitalismoaren fase honek eragin du bizitzeko ezinbestekoak diren hainbat eremu (zaintza, etxebizitza, osasuna...) merkantilizatu eta familien esku uztea; hain zuzen Covid-19ari emandako erantzuna tankera berekoa da. Trantsizioa egin nahi dugu egungo sistema kapitalista, heteropatriarkal, arrazista, kolonialista eta ekozidatiki eredu sozial, feminista, antirrazista eta ekosozialistarentzat, zeinak lehenetsiko dituen bizia eta zaintza. Hau, noski, gure sindikatuarentzat ere erronka da.
68. Trantsizioak esan nahi du lan munduari begiratzea bizi jasangarriaren ikuspuntutik; beraz, zalantzan jarri behar dira, eta aldatu, hainbat kontzeptu: lana (eta enplegua), prekarietatea, eta kapitala-lana gatazka kokatu gatazka handiago batean, hain zuzen kapitala eta biziaren artekoa.
69. Eraldaketa sistemikoaren gure helburua ez dago pragmatismoarekin kontrajarrita. Eragin nahi dugu ere eraldaketa sozialean, lan munduan bezala. Nahi dugun sindikatuak tresna izan behar du lan munduko nahiz bizitzeko prekarietateei aurre egiteko (zaintza, klima, etxebizitza, energia...); izan behar da okerren dauden sindikatua, bazterretan daudena, eta bazterretik eraiki behar dugu geure praxia eta diskurtsoa.
70. Mobilizatzeko eta alternatibak eraikitzeke lan mundutik harago sustatu, identifikatu eta eraiki behar dugu militantzia. Tokiko mailatik antolatutako militanteak, bizi baldintzekiko konpromisoa dutenak, prekarietate eta injustiziei heltzen diena. Lan- eta bizi-prekarietatea sindikatuaren erdigunean kokatzeak esan nahi du militantzia sindikalaren eremuak zabaltzen direla. Gero eta langile gehiagok pairatzen du muturreko prekarietatea (etxeke langileak, plataformetako langileak...), eta horrek eragotzi egiten du bizi-baldintzak hobetzeko antolatzea eta borrokatzeke gaitasuna. Beste hainbeste gertatzen zaie egoera administratibo irregularrean dauden pertsoneri. Gainera, eremuotan ere genero-arrakala oso nabarmena da.
71. Bidea urratzeko estrategiak eraiki behar ditugu. Bitarteko helburuak definitu eta borroka garaileak hasi, konpromiso kolektiboa hartzera animatuko dutenak, eta hori ekintza, mobilizazio zein alternatibarik egokien bidez. Beste gizarte eredu baten aldeko militantzia soziala sustatuz eta antolatuz.



## ESTATU INDEPENDENTEAREN ALDE, KULTURA ERREPUBLIKANOAREN ALDE

72. Atal honen xedea:

- a) Ondorioak atera azken urteetan auzi nazionalaren eta autogobernuaren inguruan gertatu denaz
- b) Gure nazio- eta klase-emantzipazioaren horizontea definitu
- c) Horizonte hartara nola hurbil gaitzkeen erabaki
- d) Eta ekintza-ildoak definitu

### 1. Erakunde soberanisten geldialdia

73. Organizazio soberanistak auzi nazionalari dagokionez geldialdian gaude. Alde batetik paradoxa bat da hau, izan ere, azken hamarkadan zenbait gertakarik itxaropena piztu baitzuten autogobernu eta erabakitzeke ahalmen handiagoa izateko gure helburuentzako aldi hobea zetorrela.
74. Gertakari horien artean lehenik aipatu beharrekoa da borroka armatuaren bukaera eta ondoren etorri zen ETaren armagabetze eta desagitea. Bigarrenik, estatuaren alde anitzeko krisiak ireki zuen aukera (erregearen abdikazioa, ustelkeria, bipartidismoaren amaiera eta ordezkartza-espazio berriak, justiziaren politizazioa eta bizi politikoaren judizializazioa...); krisi hau areagotu egin zuen finantza-krisiak, gero austeritate politikak eta eskubideen murrizketak krisi sozial eta ekonomiko bihurtu zutena. Eta hirugarrenik, Kataluniako Estatutari buruz Konstituzionalak emandako epaiak aktibatu zuen prozesu independentista, zeina burutu zen 2017ko urriaren 1eko kontsultarekin eta ondoren prozesuaren buruen kontrako errepresioarekin, zein Konstituzioko 155. artikulua bidezko autogobernuaren mutilazioarekin.
75. Esan dugun legez, borroka armatua desagertuta eta estatua krisian zegoela, bazirudien aktibatu zitekeela Euskal Herrian 1997tik aurrera aldarrikatu zena: indar soberanistak autodeterminazio eskubidearen alde metatzeko prozesu zibil eta demokratikoa, zeina alternatiba izan zitekeen Gernikako Estatutuaren eta Foruaren Hobekuntzaren bide itxiarentzat. Haatik, kontuak ez dira horrela bilakatu.
76. Gertatua azaltzerakoan -batik bat etorkizunerako ondorio erabilgarriak atera nahian- derrigor nabarmendu behar da (2. atala) estatuaren errepresioa, (3) Europar Batasunak estaturik gabeko nazioak umezurtz utzi izana eta, (4) jakina, a priori prozesu soberanistan partaide aktibo izatekoak ziren indar politikoaren hutsegite zein hautuek.

### 2. Errepresioa, benetako estatuaren irudia

77. Estatu espainiarra zein frantsesa egitura politiko uniformatzaileak dira; gainera, bat egin dute 2001ko irailaren 11tik aurrera gaiztotu zen joera sekuritarioarekin. Espainiari dagokionez, independentismo politikoaren errepresio ezagunaz gainera, krisi ekonomiko eta soziala eta murrizketa politikak zirela eta, protesta sozial zein politikoa eta ekint-

- za aldarrikatzailea isilarazi eta are eragozten saiatu da (mozal legea, doako justizian egindako murrizketak, prozesuen kostuak...).
78. Kutsu errepresibo horren adibide argia da euskal preso politikoei ezarritako salbuespen juridiko egoera. Urte askotan espetxe-legediari men egiteko eskatu ondoren, espainiar Gobernuak berak ukatzen die legaliterako bidea preso asko eta askori. Bestalde, urruntzea nagusi da oraindik, azken hiletan presoak mugituagatik; horrek presoengan eta hauen familiengan, batik bat seme-alabengan, dituen ondorioak ezagunak dira. Graduetan aurrera egiteko aukera eragozten da eta, horrenbestez, baita espetxe-onurak izatekoa ere. Bereziki larria da gaixorik dauden presoek egoera. Eta oraingoz ez zaizkie aitortzen berमतuta egon beharko lirakekeen oinarriko eskubiak: amatasun-aitatasuna, hezkuntza, etab.
79. Independentismo katalanaren errepresioak, bestalde, erakutsi du noraino iristeko prest dagoen NATOko kide den Espainia kalean sakoneko aldaketa sozial eta politikoak aldarrikatzen direnean. Oinarriko askatasunak (manifestazioa, iritzia, prentsa...) bat-batean moztu eta autogobernuaren erakundeak etenda utzi dituzte. Bereziki larriak izan dira lider eta hautetsi independentisten espetxeratzeak, baita beste batzuen derrigorrezko erbesteratzea, mehatxuaren poderioz. Eta hau ez da kataluniar gobernuak bere herriarekiko betebeharrak ez betetzeagatik, aintzat hartu zuelako herritarren ahotsa baizik, zeinari estatuak ez zion men egin nahi.
80. Estatuaren jite errepresiboa ez da koiunturala, egiturazkoa baizik. Baina horrek ez digu ahantzarazi behar espainiar Parlamentuko egungo osakerak aukerak eskaintzen dizkiela han ordezkaturik dauden euskal indarrei. Aukera horiek ez lirakeke inola ere alferrik galdu behar, ez arlo sozialean, ez nazionalean, eta baliatu egin beharko lirakeke 78ko erregimena delakoa higitzeko.
81. Bestalde, Eusko Jaurlaritzaren joera errepresibo bat ikusi dugu, bereziki Ertzaintzak gatazka sozial eta laboralei ematen dien tratuari dagokionez; hauek azkenean ordena publikoko arazo gisa hartzen dira. Irauten ari den kutsu errepresibo honek ondorio bakarra du, zilegi bezain beharrezko diren dinamika sozialak kriminalizatzen ditu. Nekez irudika dezakegu prozesu soberanista bat mobilizazio eta parte-hartze sozialik gabe, eta horiek integratzeko edo behintzat "toleratzeko" gauza diren erakunderik gabe.

### 3. Europa, aldarri sozial eta politikoetatik babesteko harresia

82. Hainbatek uste izan du Europar Batasuna osatzen duten herrialdeek abala eman ziezaioketela gizarte antolatuen eta estaturik gabeko nazio europarren eskari demokratikoei. Alabaina, Grezian eta Katalunian, duela gutxi gertatutako bi kasu aipatzearen, agerian utzi dute zeinen umezurtz dauden estatuen eta botere ekonomikoenak ez diren soberania eta soberaniak defenditzen dituztenak. Grezian estatu independente bati (!) sufritzen ari zen jendearen alde jokatzeko behar zuen burujabetza ukatu zioten; Katalunian, berriz, kontsultatua izateko eta bere estatus politikoaren aldaketa negoziatzeko eskubidea.
83. ELAK Europako Itun Konstituzionalaren kontrako botoa eskatu zuen uste duelako EB merkatari eta estatuen egitura bat dela, non ez dagoen lekuri langile-klasearen eta estaturik gabeko nazioan aldarrientzat. Urteotan gertatu denak, tamalez, diagnostiko hau berrestera garamatza: Europa neoliberal eta insolidarioa da auzi oso larrietan, esaterako errefuxiatuen eta inmigrazioaren auzietan. Estaturik gabeko nazioen gatazkei buruz EBren posizioa da beti estatu kidearen gobernuarekin bat egitea. Horregatik



- onartu zuen Eskoziako kontsulta, eta aitzitik Kataluniakoa gaitzetsi. Ikusteko dago zer jarrera hartuko duen orain, behin Brexit-a gauzatu denean, Eskoziak independentziarako erreferendum bat egin eta EBn sartzea eskatzen badu.
84. Manu Robles-Arangiz Fundazioaren bidez ELAk babesa eman dio Eusko Ikaskuntzaren, estatuko hainbat indar politiko eta sindikalen eta nazioarteko akademiko ospetsuen ekinaldi bati, prozedura europar bat ezar dadin lurralde-gatazkei modu baketsuan heltzeko. Lan baten oinarriak jarri nahi dira gero europar erakundeei helaraziko zaiena, ezar dadin estatu kideentzako praktika onen eskuliburu bat, estaturik gabeko nazioek planteatzen dituzten burujabetza eta aitortza auziei bide demokratikoa emate aldera. Asmo interesgarria da, guztiz beharrezkoa eta zilegi dena. Hala ere, aitortu beharra dago Europa gaur iritsi ezinako gotorlekua dela klase herritarren eta herrien eskarientzat.
85. Honenbestez, ez da bat ere lagungarria Europako sozialdemokrazia politiko eta sindikalaren zati handi baten lerratzte ideologikoa. Ez soilik postulatu neoliberal ugari modu akritikoan ontzat ematen dituelako; izan ere, beldur irrazionala agertzen baitu burujabetzaren moduko kategoriekiko, eta horrek guztiz eskuin muturraren esku uzten ditu. Horregatik indar progresistek mesfidantzaz hartzen dituzte herritarren ahalduntze prozesu politiko eta sozialak, aldiz naturaltasunez onartzen duten artean korporazio pribatuek nahiz demokratikoki hautatu ez diren erakundeek europar estatuen zoria erabakitzea.

#### **4. Estatutuaren markoa hilda dago**

86. Duela 24 urte gure sindikatuak Estatutua hilda zegoela esan zuen. Urte hauetan guztiotan marko juridikoa aldatu eta gainditzeko saio guztiak zapuztu dira. Horregatik, harrizkoa da egungo Gasteizko gobernuak asmo-handikotzat jotzea legegintzaldi honetan Gernikako Estatutua bete ahal izatea, Jaurlaritzak berak idatziz adierazi duen arren transferitutako eskumenak hustu egin dituztela berzentralizazio prozesu baten bidez. Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako Gobernuak Madrilen hartzen diren erabakien kudeatzaile administratibo hutsak dira.
87. Bete ez izanarekin haserretu, herritarrei honen berri eman eta erantzun bat prestatu ordez ontzat ematen da onartu eta 42 urte igaro direnean estatuak bere lege organiko bat, herritarrek berretsi zutena, bete gabe izatea. Eusko Jaurlaritzak are gutxiago uste du bete ez izanak sozialistekiko bere aliantzan eragina izan behar duenik, ez Madrilen, ezta Gasteizen ere. Gertatzen denak estatutuari buruzko gure diagnostikoa berresten du: Salerosketa bat izan ohi da Madrilgo gobernuak EAJren babesa behar duenean, eta indar espainolista nagusiek higituko duten markoa, euskal indarren sostengua Erresumako hiriburuan beharrezko ez denean. Hots, hilda dagoen estatutua. Bestalde, jaso gabe dauden eskumenak tantaka baliatzen dira, helburu propagandistiko hutsarekin. Gogoratu beharra dago langile-klasearentzako transferentzia erabakigarriak, esaterako Gizarte Segurantzarena, ez direla egin, eta alde bakarreko erabakiz uko egin zietela enplegu-politika pasiboei. Egoera ez da hobea Nafarroan; hemen ere Parlamentuak bozkaturako legeak inpugnatzen dira eta eskuduntzak higitzen dira, EAEn bezalaxe, baina foru Gobernuak ez du erantzun handirik ematen.
88. Gainera, pandemiarekin ezarritako alarma egoera baliatu egin dute estatuko markoa areago indartzeko. Espainiako Gobernuak maiatzean alarma egoera bukatutzat eman izanak agerian utzi du marko autonomikoak duen segurtasun eza eta menpekotasuna. Tamalez, gertakari hau edota eskumenen erosioa islatzen duten beste kasu asko ez dira baliatzen herritarrei markoaren mugak azaltzeko, are gutxiago estatuari indar-er-

- lazio batez aurre egiteko. Bestalde, argigarria da Gasteizko eta Iruñeko gobernuek konfrontaziora jo izana behin bakarrik gertatu dela, hain zuzen oinarrizkoak ez ziren jarduerak geldiarazten zituen dekretuaren aurka. Gasteizko eta Iruñeko gobernuek soilik patronalaren interesak zituzten gogoan; aldiz, lasai onartu zituzten salbuespen egoera, eskumenak murriztea edo okupazio indarren esku-hartzea.
89. Bestalde, estatuko gobernuak iritzi publikoan saldu nahi izan du benetako larrialdia gertatzen denean erakunde autonomikoak alferrekoak, apetzakoak edo traba hutsa direla, hau da, estatua dela krisialdietan kudeaketa egokia egin dezakeen aktore bakarra. Gure erakundeek zuzendu duten pandemiaren kudeaketak ere ez du lagundu iritzi horri aurre egiten. Areago, ontzat ematen da honako diskurtsoa: pandemian ez da autogobernuaz eztabaidatu behar, gure marko juridikoaren mugak krisi sanitarioan nabarmen geratu ez balira bezala.
90. Harritzekoa bada ere, estatutuaren egoera eta Gasteizko gobernuak estatuari aurre ez egiteko hartutako erabakia gorabehera, joan den legegintzaldian EH-Bilduk eta EAJk autogobernuari buruzko akordio bat sinatu dute autogobernuaren oinarriei buruz, izatekotan estatutu berri bat egite aldera. EAJren posizioa hasieratik argia izan zen: testu artikulatu bat soilik ontzat emango da PP eta PSOEek ere onartzekotan; testuak egungo estatutuak baino sostengu zabalagoa izan behar du; Madrilek onartu behar du, eta haren onarpenerako prozedura hau da: elkarrizketa, negoziazioa, akordioa eta berrespena. EAJren mezua oso argia izan da, eta hala dirau: alderdi espainiarrek beto eskubidea izango dute, eta gizarteak prozesuaren amaieran besterik ez du parte hartuko, eliteen arteko akordioa berresteko. Ulertezina da EH Bilduk akordio hau historikotzat jo izana. Edonola ere, espero zitekeen bezala, harenak egin du.
91. Horrenbestez, ezin da ulertu ELAri leporatzea ez duela akordio horren alde lanik egin. Sindikatuari leporatzen zaiona oso larria da: Batetik, ELAren moduko erakunde sozialen esku uzten da egiak esatea beste batzuek sinatutako akordioen mugei buruz; bestetik, erakunde soberanistek boluntarismo hutsez jarraitu behar dute abertzaleen arteko lankidetzaren hipotesia -gaur kale egin duena- defenditzen.
92. Gertatu denak zera galdetzeraz bultzatzen gaitu: Espero daiteke arrazionalki autogobernu handiagoa lortuko dugula estatutu berri batekin, zeina idatziko duten autonomia katalana eten eta Estatutua zein Hobekuntza higatzen eta betetzen ez dutenek? ELA ezezkotan dago.

## **5. Autonomismoa eta neoliberalismoa, txanpon beraren bi aurpegiak**

93. Indar abertzaleek hauteskundeetan arrakasta izan arren, ezin dugu bistatik galdu zeinen sakonak diren haien baitan gertatzen ari diren aldaketa ideologiko eta programatikoak. Agian aldaketarik handiena izan da agintzen ari den nazionalismoan, zeinarentzat dagoeneko autonomismoa den hipotesi politiko bideragarri bakarra.
94. Egokitze autonomista honek, batetik, jendeari protagonismoa, hitza eta erabakia kentzen dio... politika bizi instituzionalera eta eliteetara mugatuz, gizarte antolatuen ekintzari zilegitasuna ukatuz. Hala gertatua da, esaterako, zenbait gai inportantetan: armagabetzea, prozesu katalanarekiko elkertasuna, etab.
95. Bigarrenik, apustu autonomistarekin eskaintzen zaie estatuko indar nagusiei egonkortasun indar izatea estatu krisiaren testuinguruan. Eta hirugarrenik, eskaintza horretarako etengabe "aldebikotasuna" aipatzen da; halakorik, jakina, ez dago, baina kon-



- frontazio agertokiak saihesteko baliagarria da. Horrela homologatzen da nazionalismo atsegin eta arduratsua, espainiar eta euskal sistema mediaticoaren zati handi baten txaloa eta aitortza jasotzen ari dena.
96. Horregatik tematzen da EAJ “kontakizunaren lehia” delako horrekin. Etika omen da oinarria, baina benetan bilatzen dena da, alde batetik, EAEn gehiengo autodeterminista bat zapuztea eta, bestetik, PSE eta PP ez diren beste indarrek politikak eztabaidatu eta adosteko aukera ekiditea. Horrela irauarazten da agenda zeharo estatutista eta neoliberalarekin jarraitzeko aliantza-koadroa. Izan ere, urteak dira EAJ-PSE-PP ententea behar denean pitzadurarik gabe ari dela lanean, esaterako zerga- eta aurrekontu-politikan, nahiz eta indar espainolista horiek gurean gertatutako giza-eskubideen hainbat urraketa ukatu edota euskararen normalizazioaren aurka jarrera irmoa agertu. “Kontakizunaren lehia” gure ustez gauza bakarrerako baliatzen da, estatutismoaren eta neoliberalismoaren alternatiba oro indargabetzeko.
  97. Autonomismoaren legitimazioan ez da badaezpadakoa hamarkada luzetan osatu den sare klientelar zabala, zeina agerian geratzen den kudeaketa “akatsek”, ustelkeriak edo aktibismo sozialak salatzen dutenean: euskal Kutxen bankarizazioa, Erraustegiak, Euskaltel, de Miguel, Zaldibar, Miñano, Osakidetza... Atal honetan aipa dezakegu gurean zergarik ordaintzen ez duten enpresa handien eskandalua; edo sozietateen zerga dumping fiskalerako tresna bilakatzea, eta ez dirua biltzeko baliatzea.
  98. Autogobernuak pultsua galdu duela begi-bistakoa da Nafarroan ere. Duela sei urte ateraz zen UPN Iruñeko gobernutik. Bada, ez aurreko koalizioak (GeroaBaik gidatu zuenak), ezta Chiviteren gobernuak ere (PSN+Geroa Bai+Podemos+IE) ez diote inolako nahigaberik eman elite ekonomikoari, fortuna handiei eta enpresa- zein erlijiozko-lobbyei. Lehengo zerga-politikak, azpiegitura handien aldeko jarrera eta, baita oraingo kasuan ere, euskara baztertzeko jarrera. Euskal Herri guztian, beraz, autonomismoa eta neoliberalismoa txanpon beraren bi aurpegiak ditugu.

## **6. Ezkerreko indarrek kemen handiagoa agertu behar dute nazio eta klase auzian**

99. 2017ko irailean ELAk eta LABek “Aldebakarreko prozesu soberanista sozial baten alde” izeneko adierazpena plazaratu zuten. Han eskatu genuen gure eredia erabakitzeko tresna guztiak galdatu behar direla eta aldebikotasunaren fartsa salatu; politikak gehiengo sozialaren alde zeharo aldatzeko borrokatu, eta elkarrekin lan egin eta ezkerreko aliantzak aldarrikatu, gizarte-politika izanik aldeztu dugun agenda soberanistaren oinarria. Politikak goitik behera aldatuko badira erakundeak estutuko dituen presio edota mobilizazio sozialeko dinamika behar da. Ezker politikoak aliatu izan behar du helburu hau lortzeko.
100. Haatik, adierazpen haren ibilbidea moztuta geratu zen ELAk eta LABek adostutako edukiarekiko koherentea zen praxia gauzatzeko ezintasuna medio. EH Bilduren jokabide instituzionala -Nafarroan Uxue Barkosen Gobernu osatzeko legegintzaldi akordioa eta Chiviteren egungo gobernuari egonkortasuna emateko akordioa- dokumentu hartan galdatzen genuenetik oso urrun geratu da. Gauza bera esan daiteke, esaterako, urtero Eusko Jaurlaritzari aurrekontuak adosteko egindako proposamenez, nolabaiteko eduki soziala izan zezaketeleko irudi faltsua emanez. Jakina, zer esango dugu indar politiko horrek Madrilén Pedro Sanchezen aurrekontuei eta Europako Funtsen Errege-Dekretuari emandako babesaz, edota Toledoko Itunean oposizioa egin ez izanaz. LAB ez da gauza izan ELAekin sinatutako adierazpenaren alde egiteko, honek osagai



sozialak ez beste kontu batzuk lehenesten dituen EH Bilduren hautu instituzionalarekiko kritika sakona esan nahi zuelarik.

101. Ezkerra modu egokian interpelatzeko gauza izango den gehiengo sindikal bat behar dugu, gure aldarriek eremu instituzionaletan oihartzuna izan dezaten, politika neoliberalen aurrean indar-erlazioa hobetuz, aldi berean agenda alternatibo bat marrazten delarik. ELAk posizio honi eutsi egingo dio, uste dugulako beharrezko dela aldarrikatzen dugun politika aldaketa gauzatuko bada.

## 7. Estatu independente baten alde

102. Behin estatutuen aroa agortua, Euskal Herriari ahotsa eta erabakia ukatzen dioten bi estaturen aurrean, ELAk euskal Estatu baten alde egingo du, Errepublika burujabe eta independente baten alde, nazio- eta klase-emantzipaziorako horizonte gisa.
103. Errepublika gure iritziz emakume eta gizon askeen komunitatea da; euren antolakuntza sozial eta politikoaren protagonista eta jabe direnak; beren barne-artikulazioaz eta nazio zein estatuen nazioarteko eremuan izan beharreko lekuaz erabakitze ahalmen bete dutenak. Halaber, erakunde inklusiboen alde egiten dugu, antolakunde herritarren beldurrik ez dutenak eta pertsonen zein gizarte zibil antolatuaren parte hartzea bermatuko dutenak.
104. Soberania neoliberalismoaren antitesi gisa aldeztu dugu, neoliberalismoa ezberdintasun soziala eragiten duen ideologia oligarkiko eta kolektiboaren suntsipen programa den aldetik. Burujabetza ez dugu soilik estatuekiko aldarrikatzen, baizik eta herrien etorkizuna azpijaten duten konglomeratu ekonomiko eta finantzarioekiko ere. Hain zuzen, euskal Errepublika horretaranzko bide eta horizonte bakarra ikusten dugu: porentzia honen aurreko atalean azaldu den eraldaketa integraleko agenda jasoko duena. Kapitalismoaren eta klima aldaketaren krisiaren testuinguruan, guk euskal Errepublika burujabearen helburua ulertzen dugu soilik dezentralizazioari eta bertokiratze produktiboari lotua, trantsizio ekologikoari, nazio eta nazioarteko elkartasunari, eta burujabetza anitzei (elikadura, energia, teknologia...) lotua, mundu mailako interdependentziak aintzat hartuta.
105. Euskal Herriaren lurralde osotasunaren alde egiten dugu, modu errealistan, gure zatiketa historiak gaurko eguneraino utzi dizkigun erakunde, organismo eta tradizio politiko anitzetatik abiatuta. Gure Errepublika proiektua soilik uler daiteke egungo errealitatetik, baina ez dugu onartzen, ez eta onartuko ere, indarrean diren markoak baliatzea herritarren gehiengoaren borondatearen adierazpena higitzeko.
106. Errepublikaz ari garenean aldarrikatzen ari gara ere gizarte zibilaren adierazpide ezberdinak onartzeko gauza izango den kultura politiko eta instituzional bat. Bereziki gainditu beharra dago egungo erakundeek (batik bat EAEn) adierazten duten elitismo eta gutxiespena gizarte zibil antolatuko erakundeekiko (sindikatuak, mugimendu sozialak, alternatibak, ekinbide herritarrak...). Adibidez, grebalariei bilerak ukatzea arduradun sindikalekin batera badoaz; erakunde errepresentatiboekin normaltasunez harremanak izateko ukoa; gehiengo sindikala legez kanpo jartzeko saioen aurrean izandako isiltasuna; gutxiengoekin itxitako akordioak sustatzea; prozedura administratiboen bidez greba eskubidea hustea... Euskal Herria ez da autoritarismotik libre dagoen oasi bat, bertan ez baita onartzen gizarteak antolatzeke, politika egiteko eta erakundeetan eragina izaten saiatzeko duen oinarritzko eskubidea.



107. Gure nortasunaren indar solidarioan sinesten dugu. Pairatu dugun nazio-, kultur- eta hizkuntz-zapalkuntzaren historiak indartu egiten du gu geu izaten jarraitzeko borondatea, baina baita gure artean present diren beste nortasun guztiak (nazionalak, kulturalak, erlijiosoak...) solidario egiten gaituzten joera eta loturak sendotzekoa ere.
108. Erabat ukatzen dugu neoliberalismoak bultzatzen duen kultur homogeneousazioa, baita estatuek kultura eta hizkuntzei dagokienez inposatzen dituzten uniformetasun aginduak ere. Euskal Estatuaren eraikitzearen gure borondatea, beraz, ez da inola ere Espainian eta Frantziaren nagusi diren jakobinismoaren antzeko bultzada bat. Besterik gabe aldarrikatzen dugu euskal herritar izateko eskubidea, herri abegitsu batean, gure lurraldearen nortasun nazional, kultural eta erlijioso guztiakiko errespetua izango duena.
109. Errepublikaren aldarrikatzea ELAren iritziak da herri gisa batzen gaituzten elementuak berreskuratu eta indartzea, besteak beste, eta lehentasunez, euskara. Hizkuntzaren erabilpena normalizatzeko nazio gisa identifikatu eta dentsitate komunitarioa ematen digu. Espainiak eta Frantziak historian zehar inposatu izan dute homogeneousazio kulturala hizkuntza hegemonikoaren inguruan, agintzen duten eliteek marraztutako lurraldearen batasuna bermatzeko; horrek gainerako hizkuntzen minorizazio eta kasu batzuetan desagertzea ekarri du. Euskal hiztunen aurkako erasoak mota desberdinetakoak izan dira. Debeku eta zigorren garaia bukatu da, baina ez euskararen jazarpena, zeina Nafarroan eta Iparraldean gogorragoa den.
110. Jakobinismo politiko eta kulturala dira, neoliberalismoarekin batera, euskaraz bizitzeko oztopo nagusiak, hala eskubideen ikusmolde individualistagatik, nola egunerokoan dakarten homogeneousazio kulturalagatik. "Laissez faire"aren hizkuntz-politikak eragiten du hizkuntza hegemonikoek espazio guztiak hartzea, merkatuaren legearen poderioz, eta azkenean euskaraz bizi nahi dutenak baztertzea. Horregatik, ziur gaude euskara eta antzeko hizkuntz gutxituek hobeto bidera ditzaketela gaur hegemoniko ez diren eskari eta nahiak.

## **8. Alde bakarreko prozesu soberanista sozialaren alde**

111. Errepublikaren aldeko gure apustuak iparra erakusten digu, baina ez du inola ere ebatzen ibili beharreko bidea. Alabaina, indar-erlazioaren eta aktoreen kokapenaren analitiko ondorioak atera daitezke Errepublikaren horretarantzko prozesu soberanistak izan beharreko ezaugarri buruz.
112. Uste dugu prozesua alde bakarrekoa izango dela, behintzat luzaz. Izan ere, ez Estatuaren ez baitago eskuduntzen hobekuntza bat ere negoziatzeko prest, are gutxiago gure erabakitzearen eskubidea aitortzeko. Geratzen zaigun bide bakarra da alde bakarreko indar-metatzearen ekitea, jakinik gaur ez daukagula nahikoa indar Estatuarekin hausteko, ezta gure aitortza nazionala lortzeko negoziazio politiko bat behartzeko ere. Aldebakartasuna ez da gure nahia, baizik eta geratzen zaigun abiapuntu errealista eta egingarri bakarra.
113. Prozesu zibil eta demokratikoa nahi dugu. Prozesu bat zeinaren protagonista gizartea izango den, ez soilik eliteak eta erakundeak. Giza-eskubideak eta gutxiengoaren eskubideak zorrotz errespetatuko dituen.
114. Uste dugu prozesu honetan oraindik ez dagoela gehiengo instituzional nahikorik epe laburrean eta ertainean estatus politiko berri batera iristeko, gure herriko inongo eremu administratibotan. Gasteizko Legebiltzarrean erabakitzearen eskubidearen aldeko gehiengo aritmetikoa hori baino ez da, aritmetikoa, ez dauka zinezko indar politikorik,

- izan ere agintean dagoen nazionalismoak, nagusi denak, autonomismoan egokitzea erabaki baitu. Nafarroan minoria are nabariagoa da. Iparraldea aurrera doa duela gutxi abiatu den instituzionalizazio bidean.
115. Lurraldetasunari dagokionez, gaur egun Nafarroan ez dago ia autogobernua areagotzeko eztabaidarik. Euskal Herri osoan lurraldetasuna ulertzeko era oso ezberdinak daude eta, batez ere, soberanismoak indar-erlazio oso ezberdinak ditu eremu bakoitzean.
  116. Kontu hauek kontra baditugu ere, prozesu soberanista irudikatzeko moduz argigarriak izan daitezke: Prozesua gutxiengoena izango da, atxikimendu zabalagorik lortu ezean eta beste aktoreen posizioa mugiarazi arte. Alde bakarreko prozesua izango da, aurrean ez baita izango ezer negoziatzeko prest dagoen estatuturik, ez eta aldeko gehiengo instituzionalik ere. Prozesu gehienbat soziala izan behar da, beregan interesa duten aktore nagusiak sozialak baitira. Eta lurralde ikuspuntutik ezberdina izango da, gutxienik.
  117. Agian analisi hau ez da oso pozgarria. Baina ez da inola ere ezkorra. Estatuaren ez da asmo independentistak kolpe batean desagerrarazteko bezain indartsua, autogobernu borondatea, sentipen nazionala edota gure nortasun kulturala. Bestalde, erakundeetan gutxiengoak izan arren nagusi da arlo sindikalean eta oso erreferentziala eremu sozialean.
  118. Halaber, ziur gaude prozesu soberanistak eskari demokratiko unibertsalak aldarrika ditzakeela, publiko zabal batengana iristeko aukera eman diezaiokiena. Prozesu sozial gisa taxutuz gero ez dauka klase arteko aliantzek, oligarkiek, alderdietako buruek edota logika instituzional gupidagabeak ezartzen dituen mugarik.
  119. Hau da, alde bakarreko prozesu soberanista sozial batek klaseko bektorea, euskararena, bektore feminista, ekologista, demokratikoa, dekoloniala... bilaka ditzake indarrak metatzeko funtsezko bektore, bestela txertatu ezinekoak liratekeenak. Eta klase herrikoiei dagozkien nahi eta beharrianak aintzat hartuta soberanismoa dinamika erakargarri bihur dezake oinarri sozial zabal eta hedakorrentzat, batez ere prekarizazioak, politikatik aldentzeak eta ezkortasunak bereziki kolpatu dituen sektoreetan.

## 9. Lan harreman eta gizarte-babeseko euskal markoaren alde

120. Galdatzen dugu hemen eta orain gure Lan Harreman eta Gizarte-Babeseko Eredu edo Markoa erabakitzeko zor zaigun eskubidea. Uste dugu hau dela jendearen bizi- eta lan-baldintzak hobetzeko modurik egokiena. Zertaz ari gara? Hainbat gairi buruz erabakitzeke ahalmenaz: Lan legedia, negoziazio kolektiboaren artikulazioa, pentsio eta gizarte-prestazioen sistema, politika ekonomikoa, fiskalitatea, edota sektore estrategikoak, esaterako finantzak eta energia. Eremu soziorabial eta ekonomikoan eskuduntza beteak behar ditugu. Eskari hau eremu instituzionaletara eraman behar da, marko bat iritsi arte non posible izango den klase herrikoientzako eskubideak berreskuratzea.
121. Baina Euskal Markoa ez da soilik eskuduntzei buruzko helburu bat. Aurrez gutxieneko joko-arau batzuk onartu behar dira, edozein demokratik bere egin beharko litzatekeenak, areago bere burua soberanistatzat jotzen duen indar orok. Gehiengoan errespetua eta aktoreek egiaztatutako ordezkariak usurpatzeari uko egitea; kanpoko injerentziarik gabe gure herriko langileei aplikatzen zaizkien hitzarmenak negoziatzeko eskubidea; oinarrizko eskubideak, esaterako greba eta manifestazio eskubidea, bide administratibotik ez husteko konpromisoa; eremu politikoan eragina izateko boronda-



tearen errespetua... Oinarrizko printzipioak dira, oraingoz aktore instituzional guztiek errespetatzen ez dituztenak.

122. Ez da kontraesana batetik Estatutuak eta Foruaren Hobekuntzak taxututako markoa hil dela esatea eta, bestetik, marko horietan jasotako eskuduntzak aldarrikatzea. Gure autogobernuak jasandako higaduraren salaketa (batik bat arlo sozialetakoa) eta esku-ratzeke dauden ahalmenak galdatzea (esaterako gizarte segurantzaren langile-klasea-ren bizi-baldintzei lotuta dago eta aldarrikapenen tentsioari eutsi behar diogu. Hortik aurrera, badakigu gaur ez daukagula tresnarik estatua bere legedia betetzera derri-gortzeko. Honenbestez, herritarrei ezkutatzea funtsezko kontu bat, estatuaren menpe gaudela, gatazka lokartzea eta desitxuratzea da. Hain zuzen, estatutuko eskuduntzak galdatzea oinarrizko osagaia izan daiteke Errepublika burujabe bat eratzeke beharra-ren kontzientzia hedatzerakoan.

## 10. Abertzaleentzako garai erabakigarria Iparraldean

123. Azken lau urteetan konfirmatu egin da Iparraldeko mugimendu abertzale eta erakunde progresisten dinamismoa. Hainbat erakunde sortu dira, esaterako Enargia, energia sustatzeko kooperatiba (700 bazkide baino gehiago eta udalerriekiko kontratu garrantzitsuak dituen) eta martxan jarri dira eremu ezberdinetako ekinaldi eta hobekuntzak: Eusko tokiko moneta, migranteekiko elkartasun sareak, elkarte feministak, etab.
124. Baina garai honetan agerian geratu dira ere dinamika abertzalearen gabezia eta behar harrizan batzuk, esaterako Jaka Horien mugimenduarekin, zeinak argitara atera duen nolabaiteko deskonexioa dagoela erakunde politikoen, sindikatuen eta elkarten eta eredu sozial eta ekonomikoaren ondorioak gehien nozitzen dituzten biztanleen artean.
125. Gainerakoan, une politikoa erabat baldintzatzen dute pandemiak, Macronek gidatutako kontrarreforma sozialek eta gero eta gehiago 2022ko presidentetarako hauteskondeek; honez gero gerta liteke ere eskuin muturrak garaitzea. Honek guztiak marko zaila osatzen du mugimendu sozial eta klimatikoa dinamizatu beharra dagoen une batean.
126. Mugimendu abertzalearentzat eta ELAren Iparraldeko dinamikarentzat igaro den lau urteko aldi hau defini daiteke pibote-une bezala, ETAren desagiteak, armagabetzeak, presoen agendak eta Iparraldearen existentzia instituzionalak markatutako aroaren eta erantzun berriak eskatzen dituen garai berri baten artean.
127. Trantsizio honen eta Manu Robles-Arangiz Fundazioan izandako eztabaida prozesuaren ondorioz, ELAk berebiziko garrantzia duen apustua egin du: Alda mugimendua sortu du, auzo eta sektore herrikoietara orientatua. Urrats berri bat da, eguneroko borrokak eta militantzia soziala masa-erakunde abertzale batean kokatzeko asmoz, zeinak logika erradikal eta pragmatiko batekin lan egingo duen, helburutzat justizia sozial eta ekologikoa hartuta. Datozen urteetan proiektu horren garapenean inplikatzeko izango da Manu Robles-Arangiz Fundazioaren lan eremu nagusietako bat.
128. Eremu instituzionalean, lau urte igaro dira lurralde guztia hartzen duen lehen erakunde errepresentatiboa sortu zenetik: Euskal Herriko Lurralde Elkargoa. Aurreko ponentzian nabarmendu genuen egitate historiko honen garrantzia eta botere berri honek zein politika egiteko aurrekontua izateak Iparraldeko aktoreentzat zekartzan erronka berriak.
129. Erakundea egituratu eta martxan hasi denetik eskumenak dituen eremuetako politikak definitzeko unea iritsi da. Izan ere, politika garrantzitsuak ari dira definitzen zenbait arlotan: garraioa, klima, kultura... Eta garrantzi berezia du etxebizitzaren auziaren

inguruan piztu den eztabaida, Iparraldeko bizilekuen arazoaz. Funtsezko agenda da gizarztean eta belaunaldietan dituen inplikazioengatik, eta eztabaida horretan parte hartu nahi dugu.

130. Molac legearekin gertatuak erakusten du, besteak beste, Iparraldeko errealitate instituzionala hauskorra dela, baita euskara ofiziala ez izatearen ondorioak ere; honek eraman behar gaitu mobilizazio sozialarekin jarraitzera, izan daitezkeen aurrerapausoei eusteko.
131. ELAk Fundazioaren bitartez lanean jarraituko du erakunde eta alternatiba ekologiko eta sozialek osatutako ekosistema sendotzeko, gure abertzaletasun ireki eta inklusiboaren adierazpen gisa.



# 3

## BESTELAKO NEGOZIAZIO KOLEKTIBOA LAN PREKARIETATEARI BEHAR BEZALA AURRE EGITEKO

### 1. Negoziazio kolektiboa kontraboteretik egiten jarraituko dugu

132. Hainbat urtez ugazaben eta erakundeen aldetik blokeoa pairatu ondoren, Covid-19aren aurreko gatazkek negoziazio kolektiboaren zati handi bat bideratzea eragin zuten. Hala ere, nolabaiteko desbokatze honek ez du gure egiturazko diagnostikoa aldarazi: patronala eta erakundeak negoziazio kolektiboaz baliatu nahi dira aberastasuna metatzeko beren estrategiaren baitan kokatzeko. Gatazkek hedatu ezin izan ditugun eremuetako blokeoak, edo pandemian izan den negoziazioaren atoniak (Gipuzkoako Metaleko salbuespeneko akordioa salbu) erakusten dute aurrean ditugun patronal eta erakundeek ez daukatela bat ere asmorik lan merkatu prekarizatuan langile-klasearen bizi-baldintzak hobetzeko. Gainera, hurrengo kongresuartereko epea hastera goaz testuinguru konplikatuagoan, enplegu suntsipenari aurre eginez, 2012tik hona kaleratzeko aukera zabalak eskaintzen dituen legediarekin, baita etekin handiak metatu dituzten enprestan ere; langileen mobilizazioa are garrantzitsuagoa izango da kaleratze horiek ekidin eta negoziazio kolektiboa egin ahal izateko.
133. Horregatik, Kongresu honetan ELAK kontrabotere izaerari eutsi nahi dio. Zilegitasuna ez digute marko instituzionalek ematen, baizik eta langileen kezka, beharrizan eta nahiak antolatzeak, lantokietan eta hauetatik kanpo. Eragin nahi ditugun aldaketa laboral eta politikokoak bateraezinak dira gobernu eta patronalekin murrizketa politikak negoziatzearekin.
134. ELA ez da egongo "kontzertazio" eremuetan, zeintzuk profitatzen diren lan baldintzak okertzeko; halaber, ez du parte hartuko Elkarrizketa Sozialean, eztabaida-gune honen xede bakarra delako eskubideen kontrako erasoak zuritu eta politika neoliberalak justifikatzea, eta gainera patronalek beto eskubidea dute horretan. Gurean espazio honen fruiturik behinena izan da ERTEan dauden pertsona batzuentzako laguntza barregarri bat ezartzea, EAEn soilik 6.300 lagunek eta Nafarroan 300ek jaso dutena. ELAk ez du bere gain hartuko zenbaitek sindikatu nagusi izateagatik galdatzen dioten eginkizuna: gizartea baretu edo moderatzekoa. Ez ditugu onartzen ere gutxiengoak akordioak: ez dugu parte hartuko dinamika antidemokratikoetan, zeintzuk patronalari eta erakundeek akordiorik merkeena aukeratzeko bide ematen dien.
135. Patronalen eta gobernuen posizio hain gogorak gure ekintzaren erdigunean grebak eta mobilizazioak kokatzera behartzen gaitu, batez ere eremu feminizatuetan egiturazko aldaketak eragin nahi baditugu. Duela gutxi Ingalaterran British Journal of Industrial Relations aldizkari ospetsuan argitaratutako azterketa batek esaten du Euskal Herria dela Europako greba gehien egiten den eremua. Honetaz harro gaude, hori ez bailitzateke hala izango ELA eta elkartasun tresna den bere Greba-kutxarik gabe. Prekarietatea eta esplotazioa hedatzen ari direnean lan mundua antolatzea da ariketarik demokratikoa; ELAk ez du inola ere prekarietate hori otzan onartuko, horrek enpresa eta politika erarik autoritarioenari atea irekiko bailioke.
136. Sindikatua gure ikusmoldean tresna baliagarria da okerren daudenentzat. ELAren diskurtsoa eta praktika bazterretatik eraikitzea da gure bokazioa, baita langile-klasea ahaldundu eta indartzeko modurik hoberena. Sindikatuak bere lekua aurkituko du

emakumeen esplotazioaren aurka, langile arrazializatuak pairatzen dituzten abusuen kontra, etorkizunik ez dutelako matxinatzen diren gazteen aldean, euskaraz lan egin eta ezin dutenen ondoan, edota aniztasun funtzionalen bat dutenen aldean. Pertsona hauek sindikatuaren erdigunean eta nukleoan kokatu behar ditugu.

137. ELA sindikatu eraldatzailea da, printzipioen aldetik erradikala eta borrokan pragmatikoa. Berehalako lorpenak bilatzen ditugu, noski, baina garrantzi oso handia ematen diogu lorpen horiek behar bezala orientatzeari, oportunitismoan erori gabe. Adibide bat aipatzearen, lan erreformak geldiarazi ahal izan ditugu hitzarmenetan haiei buruzko klausulak txertatuz. Langileei egiten dizkiegun mobilizazio proposamenetan helburu konkretu eta irisgarriak sartzen ditugu, beti ere eraldaketarako bidean esanguratsuak badira. Horren ondorioa da, esaterako pandemiaren ondoren gure aldarrietan lehenetsi izana zaintzaren publikazioa, edota galdatzea soldatek aberastasunaren zati handiagoa izan behar dutela krisi ekonomikoa areagotu ahala.

## **2. Antolakuntza lan aldarrietatik eraiki; negoziazio kolektiboa antolakuntzatik egin**

138. Negoziazio kolektiboa eta antolakuntza elkar elikatzen dira. Negoziazioa oinarriko prozesua da sindikalizazio prozesuetan, eta sindikalizaziorik gabe ez dago negoziazio kolektibo eraldatzailea egiterik. Sindikalizazioa, langileen antolakuntza, kontzientziazio eta ahalduntze gisa ulertuta, gauzatzen da langileen helburu eta beharrekin bat egiten denean. Ideologizatze eskola bat izatekotan, hori aldarri baten aldeko borroka eta greba da; hor irudikatzen da klase-borroka
139. Azken hamarkadetan ELAk negoziazio eremuak hautatu izan ditu langileak antolatzeko aukeraren arabera. Jakina, patronala eta gobernua saiatzen dira negoziatzen langile-klasea ahulen ikusten duten eremuetan (horixe izan zen 2012ko lan erreformaren xedea, sektoreko negoziazioa estatalizatu eta enpresa hitzarmena baliatzea hitzarmen probintzietako baldintzak okertzeko), lan baldintzak higatu eta murrizketak aplikatzeko erraztasun gehien duten eremuetan. Errealitatea hau delarik, negoziazio kolektiboa tresna eraginkorra izango da langileak antolatu eta borrokatzeko prest dauden eremuetan, sektore, enpresa nahiz lantoki mailan. Gatazka bati eusteko gaitasunak lan baldintza hobetzeko aukera baldintzatzen du. Eta langile-klasearen boterea murrizten duten lan erreformen aurrean greba da tresnarik egokiena eskubideak defenditzeko. Negoziazio kolektiboaren eta antolakuntzaren ikuspuntutik baliagarri izango gara greba egiteko gaitasuna eraikitzeke gauza bagara.
140. Gogoeta hau lagungarri izan behar da negoziazio eremuak aukeratzekoan, sektore, enpresa zein lantokikoak, jarduera ekonomiko ezberdinetan. Hego Euskal Herrian lortu dugu enpresako negoziazioa, oro har, ez dadin baliatu sektoreko hitzarmen probintzietako baldintzak okertzeko, eta lantokiz lantoki egindako borroka eragiten du legea aurka izanagatik ere gaur-gaurkoz sektoreko lan-hitzarmenak gutxieneko aplikazioko neurria izatea gure lantokietan, estatu mailako enpresa-hitzarmenak aplikatzen diren enpresetan salbu. Horregatik, negoziazio eremurik ez baztertzea ezinbestekoa da ELA-arentzat, beti ere egindako hautuarekin langileak dinamizatzeke aukera ikusiz gero.
141. Halaber, ohartu gara zenbait kasutan eremuak aldakorrak direla, eta are, eremuak ere konbina daitezkeela. Esaterako, egiaztatu dugu Bizkaiko Metaleko greba lagungarri izan zaigula enpresa-hitzarmenak defenditzerakoan, edota Bizkaiko Kirol Kudeaketako hitzarmen duina lortzeko ezinbestekoa izan dela hobekuntza nabarmenak lortzea zenbait lantokitako greba mugagabeen bidez. Dinamismo honek eraman behar gaitu



- negoziazio-eremu guztietan saiatzera, sektore, enpresa zein lantokikoak, baita bi eremuak konbinatzeko estrategiak hautatzera ere.
142. Eremuen hautua langileen interesak aintzat hartuz izan dadin ezinbestekoa da 2010, 2011 eta 2012ko lan erreformak indargabetzea, batik bat negoziazio kolektiboaren egiturari dagokionez, eta egitura berri bat taxutzea, zeinak aukera emango duen urruneko edukiak gertueneko eremuetan hobetzeko, mugarik gabe. Prekarietatea lantokietara iristen da estatuko hitzarmenen bidez; bertan hobetzeko aukera izatea demokrazia, burujabetza eta klase-defentsa ariketa da. Estatuko sektore hitzarmenetan ontzat ematen diren esplotazio baldintzak hobetzeko aukera izan nahi dugu: ez dugu besterik eskatzen; horretarako sinatu genuen 2017an EAEko Lanbidearteko Akordioa.
  143. Ponentzia idazterakoan Madrilen ordezkariak duten euskal alderdi politikoei negoziazio kolektiboari lotutako erabakiak baldintzatzeko aukera dute. Jakinaren gainean egon behar dute honek zer esan nahi duen Hego Euskal Herriko langile-klasearen bizi-baldintzetarako, eta lehenetsuna izan behar duela Espainiako gobernuaren harremanetan. Halaber, sindikatu errepresentatiboen negoziatzeko eskubidea defenditu behar dute. Alderdi politikoei mobilizazioaren bidez ikusarazi behar diegu auzi honen garrantzia, eta lortu behar dugu negoziazio kolektiboan ere Euskal Herrian erabakitze eskubi-dearen aldarria saihestezina izatea.
  144. Herri-administrazioetan ere indargabetu egin behar dira azken hamarkadetan arlo publikoko langileen baldintzak negoziatzeko ahalmenari ezarri zaizkion mugak. Estatuko oinarrizko legeak aitzakia izan dira gure administrazioetan doikuntza politikak ezartzeko; orain alderdiek legedia hori indargabetzeko aukera dute. Publikoa indartzearekin batera doa sektoreko langileen baldintzen hobekuntza.
  145. Halaber, dinamismo handiagoz hautatu behar dira administrazioetako negoziazio eremuak. Batzutan ez da erraza herri-administrazioetarako lan egiten dutenekin harremanetan jartzea, negoziazio eremuak oso zentralizatuta baitaude; lantoki bakoitzeko arazoei aurre egitea Gizalanean negoziazio kolektiborako ardatz bihurtu behar da, soilik hortik abiatuta eraiki ahal izango baitugu behar dugun antolakundea.
  146. Negoziazioaren fase ezberdinetan sistematizazioa eta metodologia homogeneousak ezartzea, adibidez lantokietan baldintzei buruzko inkesta ereduak, lagungarri izan behar da lantaldeen beharrezkin konektatzeko, gure aldarriak aberasteko eta sarritan gatazkatsuak izango diren negoziazioetan indartzeko; beraz, eraiki behar dira lantaldeen inplikazioa prozesu guztian zehar bermatzeko moduan.

### **3. ELA, lan munduko prekarioen sindikatua**

147. ELA erreferentziako sindikatua da langile prekario ugarirentzat, baina guztientzat izatea nahi dugu. Hau da kongresu honek finkatzen dituen helburu estrategikoetako bat. Prekarietatea bada egungo lan merkatuaren ezaugarri nagusietako bat, haren aurkako borroka ELA definitu behar du. Aipatu dugun moduan, honek emakumeengan orientatzea behartzen gaitu, prekarietatearen inguruko adierazle guztietan eurek pairatzen baitituzte tasarik altuenak. Halaber, lan eremu prekarizatuetan gehienbat diskriminaziozko errealitateak aurkituko ditugu hainbat kolektibotan: pertsona migratu eta arrazializatuak, aniztasun funtzionala dutenak, gazteak, disidente sexualak, etab. (hauetan guztietan erdia edo gehiengoa emakumeak direlarik).
148. Lan munduak azken urteetan bilakaera kezagarria izan du: Euskal Herrian gero eta langile gehiagok nekez lortzen dituzte bizimodu duina izateko dirusarrerak, bitzita an-



- tolatzeko gutxieneko egonkortasuna emango dien lana eta inguru osasungarria duen lantokia. Hain zuzen hiru osagai horiek definitzen dute lan prekarietatea: sarrera urriek, kontratu egonkorrik ez izateak eta osasunerako kaltegarria den lana izateak.
- a) Soldata kaskarra duten pertsonak asko gehitu dira, gutxieneko atalase gisa definitu dugun 1.200 euroren azpitik. Gainera, soldatarik apalenek galdu dute eros-ahalmena. 2019an Gipuzkoan egindako azterketak (beste lurraldeetan ez dago hau egiteko aukerarik) adierazi zuen oro har soldatek hamarkada batean eros-ahalmenaren %10 galdu zutela, eta honek batik bat sarrera apalena dituzten %20ari eragin ziela. Bestalde, soldata altueneko %20aren soldatak azpiko 2 dezilenak baino 17 aldiz handiagoak ziren; 2008an 12,6 bider handiagoak. Analisi honek konfirmatu zuen Gipuzkoan gizon eta emakumeen arteko soldata arrakala %33koa dela. Lana berregituratzen ari da; enplegua galtzen ari da lan baldintza hobereak dituzten sektoreetan eta, aldiz, gehitzen eremurik prekarioenetan; gainera, lanaldi partzialeko lanaren gorakadak -emakumeen kontratuen %43 mota honetako da- eragin du 1.200 eurotik beherako sarrerak dituztenak gehitzea.
  - b) Hego Euskal Herriko aldi baterako enplegu tasa Europako batez besteko maila baino askoz handiagoa da. Egun sinatzen diren kontratuen %90 aldi baterakoa da, eta Hego Euskal Herrian 160.000 aldi baterako langile daude; hauetako 70.000k herri-administrazioetan dihardute. Herri-administrazioek behin-behinekotasuna sistemaz erabiltzea salatu beharra dago; %40tik gorako tasa dute, enpresa pribatuetako portzentajearen bikoitza ia. Kontraturik gabekoak eta autonomo faltsuak ez dira estatistika hauetan agertzen.
  - c) Badakigu lan egiteak gaixotasunak eragiten dituela. Hau areagotu egin da, gainera, pandemiarekin. Arduradun politiko eta enpresentzat onargarria da lan egiten dutenak eta hauen senideak gaixotzea, hori bada enpresa baten jarduera normalari eustearen kostua. Herritarrei enpresetatik kanpo milaka isun ezarri zaizkie, baina ia ez da zigorrik izan langileen bizia arriskuan jarri duten enpresarioentzat, nahiz eta Eusko Jaurlaritzaren datuen arabera koronabirusaren agerraldien hiru laurden lantoki batean izan diren. Era berean, Covid-19ak sindikatuarentzat erronka handia den beste pandemia bat, arrisku psikosozialena, larriagotu egin du.
149. Lan prekarietatea zapalkuntzen interseksionalitatearen adibide nabarmena da. Prekarietatean aurkitzen ditugu emakumeak, pertsona arrazializatuak, aniztasun funtzionala dutenak eta gazteak. Aurrerago garatuko dugu genero aldetik sindikatuak negoziazio kolektiboan egin beharreko eraldaketa sakona; hemen salatuko dugu gure herriko gazteen egoera. Hauetako askok beren bizi-proiektua Euskal Herriatik urrun eraiki behar izaten dute. Gazteen langabezia tasa ia %40koa da (%30ekoa 30 urtetik beherakoan artean); 25 urte arteko gazteen batez besteko soldata Lanbidearteko Gutxieneko Soldata baino apalagoa da, eta eurek pairatzen dituzte gehienbat soldata-eskala bikoitzak. Behin-behinekotasuna gazteen artean araua da; adin tarte honetan prestakuntza kontratuak edota lan eredu berriak metatzen dira (esaterako, plataforma bidezko lana); gainera, lan istripuak sarriago izaten dituzte aldi baterako langileek; horregatik da kolektibo hau istripu gehien jasaten duena. Ez da harrizkoa gure herrian emantzipatzeko batez besteko adina 30 urtekoa izatea. Prekarietateari aurre egitea gazte enpleguaren osagai taxutzailerari aurre egitea da, eta sindikatua militante sindikal berriekin gaztetea ere esan nahi du.
150. Gauza bera esan dezakegu pertsona arrazializatuari buruz: Pobrezia, langabezia eta behin-behinekotasun tasa altuagoak pairatzen dituzte. Prekarietatea amaiazi nahi duen sindikalismoak antirrazista izan behar du, izan ere, soilik borroka sindikalera migranteak eta pertsona arrazializatuak erakarriz gero izango baikara eragingarriak prekarietatearen aurka.



151. Azkenik, aniztasun funtzionaleko pertsonen jarduera-tasa besteena baino 40 puntu txikiagoa da, eta langabezia tasa, bikoitza. Gainera, euretako askok Enplegu Zentro Bereziatan egiten dute lan, non soldata Lanbidearteko Gutxieneko Soldatatik hurbil dagoen, eta kasu askotan azpitik. Pertsona hauek nekez topa dezakete autonomia emango dien lan bat. Kasu hauetan ere prekarietateari aurre egitea ELArentzat izango da aniztasun funtzionala dutenek pairatzen dituzten diskriminazioei ekitea eta duintasunez bizitzeko eskubidearen alde egitea.
152. Kongresu arteko aldi urrats eraginkorrak egin ditugu prekarietatearen aurkako borrokan. Federazio guztietan meritu handiko borroka eta konkistak izan ditugu, batik bat sektore feminizatuetan, adibidez sektore soziosanitarioan edota garbitasunean. Gainera, negoziazio kolektiboan, batez ere sektore hitzarmenetan, urrats kualitatibo handiak egin ditugu prekarietatearen aurka; hainbat sektoretan era honetako neurriak funtsezkoak izan dira gatazkei ekin eta hitzarmenak ixterakoan. Hor ditugu, adibidez, Gipuzkoako Eraikuntzako azpikontratetan hitzarmena aplikatuko dela bermatzeko neurriak, Metalean lehenengoz subrogazio eskubidea arautu izana, edota Ostalaritzako edo Ostatueta azpikontratetan subrogazioa eta aplikatu beharreko hitzarmena ezarri izana.
153. Horretaz gainera gaur esan dezakegu ELAk sinatzen dituen hitzarmen gehienetan bermatzen dela gutxienez 1.200 euroren soldata, eta patronalak gutxieneko hori gainditu behar izan duela. Kezkatzen gaituena da hori ez dela gertatzen estatu mailako hitzarmenetan, edota patronalek hitzarmenak blokeatzen dituztelako gure herrian hortik beherako soldatak egotea. Gaur Euskal Herrian 1.200 euroz azpitik dauden soldatak ez dira aplikatzen ELAren oniritziz, baizik lanaldi partzialeko zein prestakuntza kontratuetan, edota Euskal Herriko hitzarmenik indarrean ez dagoen eremuetan. Halaber, Lanbidearteko Gutxieneko Soldatak igoera handia izan du. Horregatik, 1.200 euroen erreferentzia gaindituztat jo eta erronka berriak finkatu behar ditugu, anbizioz, baina gure negoziazio kolektiboan iristeko modukoak izango direnak.
154. Prekarietatea erauzteko egindako urratsak sarritan gure zerbitzu juridikoen ekintza judizialarekin batera etorri dira. Zerbitzu juridikoa funtsezko tresna dugu prekarietatearen kontrako borroka sindikala osatu eta indartzeko. Gure talde juridikoak ehundaka erreklamazio sartu ditu, banako zein kolektiboak, lan eskubideen era guztietako urraketei aurre egiteko (langileen lagapen ilegala, iruzurrezko kontratuak, lan osasuneko urraketak...). Zenbait epai, esaterako Europar Batasuneko Justizia Auzitegian administrazioko aldi baterako kontratuei buruz irabazitakoa, Osakidetzaren aurkako demanda batean, arrakasta judiziala ez ezik baliagarria izan da lantokietako gure ekintza sindikalari dimentsio oso ezberdina emateko. Ezinbestekoa izango da lantokiko borrokaren eta aldarri judizialaren arteko osagarritasun horri eustea.
155. Prekarietateari buruz egindako bidea sindikatuan aldaketa kulturala eragiten ari da, baina hala ere ezin dugu esan ELA gaur prekario "guztientzako" sindikatua denik:
  - a) Ez dugu oraindik lortu prekarietatearen aurkako neurriak saihestezinak izatea egiten dugun negoziazio kolektibo guztian.
  - b) Ez gara iritsi ere gure enpresetan hitzarmenen negoziaketa dinamikatik kanpo pertsonak pairatzen duten prekarietatea gainditzeko plan konkrituak izatera.
  - c) Ez dugu lortu antolatzekeo garaian ELA izatea erreferentzia era guztietako langileentzat.
156. Horregatik uste dugu mugari batzuk finkatu behar ditugula aski antolaturik ez gauden eremuetan aurrera egite aldera. Besteak beste, hau proposatzen dugu:

- a) Ordezkaritza dugun enpresetan prekarietatearen kontrako plana abiatu datozen lau urteetan. Prekarietatea gainditzeko eremurik egokiena lantokia da; hor eragin dezakegu pertsonak muturreko egoera horietatik ateratzeko.
- b) Enpresa eta sektoreetan egindako prekarietateari buruzko diagnostikoaren baitan, erabateko lehenetsuna eman hitzarmenen negoziazioan prekarietateak kasu bakoitzean dituen adierazpideen aurkako neurriei. Besteak beste honako neurriak negoziatu nahi ditugu datozen lau urteetan:
- 1.300 euroren gutxieneko soldata eta neurriak ezarri nahi gabe lanaldi partzialan diharduten langileak lanaldi osoko kontratua lortzeko aukera izan dezaten, horrela gutxieneko sarrera duinak bermatuz soldatapeko biztanleria guztiarentzat.
  - Azpikontratazioa mugatzeko neurriak, batik bat subrogazio eskubidea.
  - Aldi baterako kontratua duten langileak kontsolidatzeko neurriak.
  - Lanean ez gaixotzeko eskubidea bermatzeko neurriak; batez ere, arrisku psikosozialen inguruko plan eraginkorrak abiatu.
- c) Prekarietateari bide ematen dion araudiari buruzko eztabaida, hala Hego Euskal Herriko administrazioetan nola Madrilgo Parlamentuan. Euskal alderdiek ez dute baliatu han duten eragiteko ahalmena lan prekarietatea murrizteko; ELA saiatuko da politika publikoak baldintzatzen langileen antolakuntzaren eta mobilizazioaren bidez, eta prekarietatea saihestu ezineko gaia izan dadin. Hiru lan eremu aurreikusten ditugu:
- Administrazioako azpikontratetan lan duin, ondo ordaindu, egonkor eta segurua bermatzeko neurriak; ziurtatu behar da gutxiarik sektore-hitzarmenentako lan baldintzak aplikatuko direla.
  - Salbuespenezko araudia ezarri sektore publikoan aldi baterako enpleguaren ohiz kanpoko kontsolidazioa gauzatzeko, behin-behinekotasuna jasan duten langileen kontsolidazio prozesuak egitea eta, horrekin batera, neurriak hartu aldi baterako gehiegizko tasak berriz gerta daitezten ekiditeko.
  - Prekarietatea eragin duten lan erreformen derogazioa eta gure negoziazio kolektiboan erreformaren aurkako klausulak txertatzea.
- d) Koordinazioa hobetu lantokietako ekintza sindikalaren eta ekintza judizialaren artean, hartara sinergiak sortuz prekarietatearen agerpenei hobeto ekiteko.
- e) Halaber, federazioen arteko koordinazioa hobetuko dugu, batik bat enpresa nagusietako eta azpikontratetako gure ordezkarien artean, bietan prekaritatea murrizteko.
- f) Azkenik, antolakuntza aldaketak abiatu eta esperientziak egin lan prekarietatearen hedapenak zein digitalizazioaren ezarpenak ekarri dituen prekarietate modu berriei aurre egiteko.



#### 4. **Negoiazio kolektiboa, emakumeek pairatzen ditugun arrakalen aurkako arma**

157. Euskal Herriko lan munduan izan diren gatazka feministarik handienak ziurrenik ELAk azken urteetan bultzatakoak izan dira. Ez da erraza gure sindikatuko emakumeek egin dituzten moduko borroka adibideak aurkitzen, esaterako Bizkaiko zahar-etxeetako garaipena, zaintza eredu berri bat galdegiteko, edota soldata arrakalaren aurka Gipuzkoako komisaria eta auzitegietao garbitasun sektorekoa.
158. Baina emakumeek lan munduan oraindik gizonen baino baldintza askoz okerragoak jasaten dituzte. Lan baldintzak zeharo txarragoak dira lantaldeen gehiengoa emakumeek diren sektoreetan; halaber, betidanik gehienbat emakumeen esku izan diren lanetako baldintzak kategoria maskulinizatuetaoetakoak baino okerragoak dira. Ondorioz, emakumeen ordainsaria batez beste %33 hobetu beharko litzateke gizonen batez besteko mailara iristeko; emakumeen lanaldi partzial tasa gizonena baino hiru bider handiagoa da, eta aldi baterako enplegu tasa, 4 puntu altuagoa. Gainera, gobernuek behin eta berriz urratzen dute emakumeen greba eskubidea; sarri zuzenean galarazi egiten dute oinarrizko zerbitzuak direla eta abusuzko gutxieneko zerbitzuekin; hala ere, oinarrizko zerbitzuok lan baldintza okerragoak dituzte halakotzat jotzen ez diren sektoreetaoek baino. Eta honi ezkutuan dagoen errealitate bat erantsi behar diogu, sexu jazarpena.
159. Haatik, negoziazio kolektiboaren bidez genero-ekitatean eragitea lan baldintzetan berdintasuna bermatzea baino askoz gehiago da. Sindikatuak egiten duen negoziazio kolektiboan emakume langileen helburuak aintzat hartzeko ekitatean oinarritutako orientazioa behar da. Eta honekiko bi arazo handi ditugu:
  - a) Sindikatuan egin dugun diagnostikoaren arabera oztopo handiak ditugu berdintasunezko negoziazio kolektiboa garatzeko. Egun sindikatuan langileen kezkei eta baldintzei buruzko informazioa biltzeko daukagun sistemak ez ditu behar bezala emakumeen kezka eta diskriminazioak jasotzen. Beharrianak ezagutzeko sindikatuak erabiltzen duen eremu nagusia batzarra da; haatik, emakumeek arazo gehiago izan ohi dute horietan parte hartzeko; emakumeek gehiengo diren sektoreetan ez da erraza izaten batzarrak antolatzea, barreiatuta daudelako; batzarretara joateko aukera dutenean haiek antolatzeko moduak emakumeen parte hartzea eragozten du. Ondorioz, sindikatuak ez ditu emakumeen beharrian eta interesak gizonenak bezala jasotzen.
  - b) Bestalde, hitzarmenak negoziatzerakoan lehentasuna eman izan diogu ustez gizon eta emakumei era berean eragiten dieten gaiei, eta ondorioz interes orokorra definitu izan dugu, esaterako soldata eta lanaldiko hobekuntzen eskaria; alabaina, gai horiei erabateko lehentasuna emateak alboratu egin ditu egoera okerrean daudenen aldarriak (lanaldi partziala murriztea, aldi baterako langileen kontsolidazioa...), salbuespen batzuk gorabehera. Honek bereziki emakumei eragin die, eta horregatik garrantzi handiagoa eman izan diogu soldata igoera orokorra lortzeari, ez leku bakoitzean soldata arrakala gainditzeari. Noski, arazo honen definizio orokorraren salbuespenak eta kontrako adibideak ere badira, baina diagnostiko orokorra hori da. Sindikatuaren aldarriak horrela hautatzeak ere arrakala sortu du gure sindikatuaren ekintzan.
160. Diagnostiko honetatik abiatuta sindikatuan aldaketa kualitatibo eta kuantitatiboak egin nahi ditugu, emakumeek pairatzen dituzten arrakalak desagerrarazteko, organizazioaren baitan zein kanpoan. Honako konpromisoak hartuko ditugu:

- a) Lan baldintzei buruzko informazioa bildu eta langileen interes eta kezkek ezagutzeko sistema aldatu egingo dugu genero irakurketa egokia egiteko, emakumeek pairatzen dituzten arrakalak antzemateko eta haien asmoak behar bezala jasotzeko.
  - b) Gure negoziazio kolektiboan emakumeen aldarriak modu egokian islatzen direla bermatzeko emakumeentzako sozializazio eta kontzientziazio guneak sortuko ditugu eta neurriak hartuko ditugu ziurtatzeko sindikatuaren erabakiguneetan emakumeen interesak aintzat hartuko direla, sindikatuaren lehentasun estrategikoetan eraginez.
  - c) Salatu egingo ditugu bereziki emakumeei eragiten dieten prekaritate motak. Azkenik, aliantzak landuko ditugu emakumeek pairatzen dituzten esplotazio egoerei aurre egiteko eta, bide batez, mugimendu feministak zein beste erakunde batzuek emakumeen bizi-baldintzak hobetzeko egiten dituzten proposamenetatik ikasi egingo dugu, gure ekintza sindikala hobetuko duten osagaiak txertatuz.
161. Aldarri material zehatzei dagokienez, are lehentasun handiagoa emango diegu sindikatuaren plataforma eta mobilizazioetan zaintza eremuen publikazioari eta soldata arrakalaren kontrako borrokei, eta lanaldiaren murrizketari. Koronabirusaren aurkako borroka agerian utzi du zaintzaren merkantilizazioak, lan baldintza eta zerbitzuei kalte larria eragiteaz gainera, zuzenean bizien galera ere ekarri duela; horregatik ezinbestekoa da zaintza eredu goitik behera aldatzea, eta sektorea publikatzea horretarako aurrebaldintza da.
162. Bestalde, soldata arrakalaren kontrako borroka izango da ELAren negoziazio kolektiboko beste ardatza. Batetik, lan hitzarmenak negoziatzerakoan oso zorrotzak izan behar gara sektore feminizatuetako soldata igoerekin, areago antzeko lana egiteagatik gizonen soldata handiagoa jasotzen dutelako erreferentzia argiak direnean. Bestetik, gure negoziazioaren erdigunean kokatu behar ditugu kategorio maskulinizatu eta feminizatuen arteko arrakalak edota soldata-plusen balorazio desberdina lanpostu maskulinizatu eta feminizatuetan.
163. Gainera, genero ekitatearen ikuspuntutik behar-beharrezkoa da lanaldia murrizteko borroka (aldarri hau eraldaketa digitalari eskainitako atalean ere jorratuko dugu). ELA lanaldia murrizteko bere proposamena berregingo du aldarri honetan lanaren errealtate guztia aintzat hartzeko, produktiboa zein erreproduktiboa. Lanaldia murriztea izan behar da, lana banatzeko bide ez ezik, gure gizarteari produkzioa eta erreproduktzioa egiteko aukera ematen dioten denborak kontutan izatea eta horrela lan guztiak, zaintza barne, berdintasunez banatzea. Ikuspuntu honetatik, baita ingurumenetik ere, lau eguneko lan astearen inguruko eztabaidari ekin behar diogu.
164. Orain arteko Berdintasun Planen aplikazioari ez deritzogu ondo; enpresek ez dituzte negoziatu nahi izan, eta negoziatu den kasuetan ez dute sakoneko analisirik egin nahi izan edota plan horietan ezarritako neurriek, oro har, ez diete heltzen emakumeek pairatzen dituzten egiturazko arazoei. Plan hauek hobeto baliatu behar dira sindikatuan diagnostiko hobek egiteko, enpresetan emakumeak ahalduntzeko eta diskriminazioen kontrako neurri eraginkorrak sustatzeko; halakorik ez dugu orain arte lortu. Horregatik, pandemia hasi baino lehenago barne prozesu bati ekin genion gure militanteen esku baliabide ideologiko eta teknikoak jartzeko eta planen negoziazioa hobeto egituratzeko. Kasu askotan, batez ere enpresa oso feminizatuetan, Berdintasun Planak estatu mailako enpresetan izan ohi dira; horregatik, negoziazioa gure lantokietara hurbiltzeko lan egitea garrantzitsua izango da ondoren deskribatuko dugun prozesua egin ahal izateko.



165. Berriz heldu nahi diogu dinamikari eta Berdintasun Planen negoziazioa hobetu, hiru puntutan:
- a) Enpresek azpikontraturiko diagnostikoekin batera gure atal sindikaletan geure diagnostikoa egin behar dugu genero arrakalei buruz; ondoren, gure aldarriek aintzat izan behar dituzte antzemandako diskriminazio eta arrakalak; hau da, ELAk Berdintasun Planak onartuko baditu benetan lagundu behar dute emakumeek pairatzen dituzten arrakalak gainditzten.
  - b) Berdintasun Planen negoziazioa baliatu behar dugu aipatutako barne gabeziei heltzeko. Lehenago esan dugun moduan emakumeen ahotsa ez dugu behar bezala kontutan izan eta, horrenbestez, Berdintasun planen negoziazioa aukera ezin hobe dugu emakumeen ahalduntze guneak eraikitze eta bermatzeko euren ikuspuntuak aintzat hartuko direla.
166. Berdintasun Planak adostu daitezke edo enpresak inposa ditzake, baina emaitza edozein dela ere, planak negoziatzerakoan ikasitakoak enpresa zein sektoreetan egiten dugun negoziazioa eraldatu behar du. Koherentziaz jokatu nahi dugu; ondorioz, Berdintasun Plan bat medio arrakalak antzeman, horiek gainditzeko neurriak proposatu baditugu eta enpresak onartu ez baditu planen edukia negoziazio garaian baldintzatzen saiatuko gara, mobilizazio eta greben bidez, baina baita -hau are garrantzitsuagoa da- gure aldarri estrategikoak Berdintasun Planetan egindako eskarien arabera baldintzatu behar ditugu sindikatuen sinadurarik gabe onartu ezin diren lan hitzarmenetan; lortu behar dugu eskari hauek sinatzeko ezinbesteko baldintza izatea.

## **5. Langile-klasearen osasuna arriskuan jartzen dutenek garesti ordaindu behar dute**

167. Urtero 50etik gora langile hiltzen dira lan istripuz Hego Euskal Herrian; nazioarteko estatistiken arabera, lan istripuz gertatzen den heriotza bakoitzeko beste 35 eragiten dituzte gaixotasun profesionalek; Hego Euskal Herrian urtero 40.000 langilek laneko istripuen ondorioz baja hartzen dute, eta estatistika hauetan ez da agertzen arrisku psikosozialen ondorioz kalteak pairatzen dituen pertsona kopuru izugarria. Drama hau gobernu eta patronalek "albo-kalte onargarri" gisa, kontu natural bat bailitzan ikusarazi nahi dute egungo sistema produktiboa mantentzeko. Urtez urte egiaztatzen dugu lan osasuna ez dela lehentasuna, ez patronalentzat, ez eta administrazioentzat ere.
168. Martxoan Bidelagun Fundazioa sortzea erabaki genuen. Nahi dugu lan osasuna enpresentzat kezka izatea; hau onartu nahi ez eta langileei kalteak eragiten dizkietenek larritik ordaintzea. Zerbitzu juridikoak indartuko ditugu gure afiliatuek kalteordaina jaso dezaten jasandako kalteengatik eta sindikatuan ikas dezagun osasunerako eskubidea enpresen aurrean hobeto defenditzen.
169. Fundazioa talde txiki batekin hasi da lanean; saiatuko gara hau zabaltzen eta erronka berriei heltzen. Besteak beste, hauek dira talde berriaren helburuak:
- a) Enpresek neurriak hartu ez dituztelako kalteak izan dituzten pertsonen kalteordaina jasotzea. Tamalez, ziur baikaude enpresak prebentzioaz kezkatzen hasiko direla benetan garesti gertatzen zaienean; gure asmoa da enpresarioentzat garestiagoa izatea prebentzio neurririk ez hartzea, hauek ezartzea baino.

- b) Gure militanteentzat eta langileentzat prestakuntza lana garatu. Batetik, prebentzio neurri egokiak galdatzeko, eta bestetik, salaketa gehiago egin daitezkeen kalteordaina eska daitezkeen kasuak ezagutzen direnean.
  - c) Gizartean langileen osasun prebentziorako balioak ezagutzera ematea.
  - d) Lan osasuneko berrikuntza juridikoak bultzatu sindikatuak koronabirusaren krisian lortu duen erreferentzialtasuna beste gai batzuetara hedada dadin.
  - e) Azkenik, ohiko lan istripu eta gaixotasun profesionalen gainera, ELA oso kezkatuta dago arrisku psikosozialek langile-klasearengan duten ondorioekin. Arrisku hauei aurre egiten ikasi behar dugu, enpresetako eguneroko ekintzan zein eremu juridikoan. Nahi dugu ELA benetako erreferentzia izatea, baita gai honetan ere, eta Fundazioak horretan lagundu behar du.
170. Bestalde, Fundazioa baliabide bat gehiago denez, honek Lan Osasuneko Arloaren esku-menak hedatzeko aukera eman behar digu; orain arte ezinezkoa gertatu da lan kargen ondorioz. Arloak bi kontutan hobetu behar du:
- a) Batetik, gure arduradun eta militanteen prestakuntza iraunkorrean; besteak beste, tresnak eskaini behar dizkie haiei enpresetan sortzen diren arazo konkretuei aurre egiteko, lantoki bakoitzari egokitutako neurri prebentibo egokiak ezartzeko, edota genero irakurketa gure ekintza prebentiboan aintzat hartzeko;
  - b) Bestetik, negozioazio kolektiboan enpresa eta sektore bakoitzeko arazoei egokitutako aldarriak egin ditzagun. Lan Osasuneko Arloak negozioazio kolektiboan bultzada egin behar du jarduera-sektore bakoitzari egokitutako prebentzio neurriak galdatzerakoan. Besteak beste, Arloak lagundu behar du gure negozioazio kolektiboan txertatzen azken bi urteotan ikasi dugun guztia, esaterako arrisku biologikoei nola aurre egin, babes-ekipo egokien erabilera edota egoera kritikoei heltzeko behar den lan-karga eta langile kopurua.
171. Halaber, herri-erakundeei presio politiko handiagoa eragin nahi diegu, lan osasunari dagokionez behar bezala presta daitezkeen derrigortzeko. Bereziki gure herrian diren ikuskari kopurua nabarmendu nahi dugu, Europar Batasuneko batez besteko maila baino 2,5 aldiz txikiagoa baita. Hau izango da gure aldarrien lehentasuna, eta horregatik Gehiengo Sindikala osatzen duten beste sindikatuekin horren alde egingo dugu lan.

## **6. Gizartearen mesederako eraldaketa digitalaren alde**

172. Bizitzen ari garen eraldaketa digitalaren xede nagusia ez da gizateriaren, ez planetaren beharrianak asetzea. Gehienbat multinazional handi batzuk eta hauen diru-goseak gidatutako prozesu bat da. Horregatik ezinbestekoa da burujabetza teknologikoa aldarrikatzea, hots, aurrerabide teknologikoa herritarren beharriari egokitzea, hura demokratikoki eraikitzea eta planetaren mugak aintzat hartzea. Egia da teknologia berriek hobeto bizitzeko lagungarri izan daitezkeela, soldatapeko lana hein batean liberatzen, baina hau soilik izango da produktibitate gehikuntzak lan gutxiago egitera bideratzen badira, ez enpresen etekinak puztera, bide batez enpleguak suntsitzen dituztelarik.
173. Digitalizazio prozesua geureganatu behar dugu; eta langile-klase garen aldetik zaindu behar dugu ez dezatela gure kontra baliatu. Hala egin ezean, trantsizio digitala basatia gerta daiteke: gure kalkuluen arabera automatizazioak epe laburrean egun Hego Eus-



- kal Herrian dagoen enpleguaren %42 eta %47a bitarte kolpa dezake. Administrazioen inplikazioa ere galdatzen dugu, eraldaketa digitaleko prozesu hau gizartearen zerbitzura jar dezaten; ezin dute ezikusiarena egin edo fenomeno meteorologiko bat balitz bezala hartu.
174. Bestalde, plataforma digitalen eta 5G teknologiak lanaren segmentazioa eta deslokazioa eragin dezakete, lan-prozesuak askoz ere konplexuago bihurtzakeelako. Telelanaren eta plataforma bidezko lanaren konbinazioak lana deslokalizatu eta atomizatzea ekarriko du, baita langileen indibidualizazioa ere.
  175. Geratzen diren lanpostuetan, berriz, enpleguan teknologia berriek behartuko gaituzte erronka berriei aurre egitera. Datuak biltzeko aukera askoz handiagoa izango da, baita horiek prozesatzekoa ere. Ondorioz, hainbat kontu -langileen hautaketa, promozioa, pizgarrien ordaina eta lana arautu izan duten beste kontu batzuk- erabat aldatuko dira. Algoritmo matematikoen erabilpena ELarentzat kezka izan behar da, eta honekin batera haien diseinuan sar daitezkeen joera matxista, arrazista, klasisten kontrola.
  176. Hau Glovo baino askoz larriagoa da. Epe laburrean balio teknologiko urriko industria guztia automatiza daiteke. Bankuetan dagoeneko milaka enplegu suntsitu dira, eta askoz gehiago kenduko dituzte; merkataritza birmoldaketa betean dago, online salmenta sistemarantz; litekeena da administrazio-lan errepikakor asko desagertzea... Jokoan dago ea eraldaketa digitalarekin gizarte osoaren bizimodua hobetuko ote den ala langile-klasea pobretuko duen. Horregatik, egoera honen aurrean aldarri berriak plazaratu behar ditugu, maila konfederalean eta federazio bakoitzaren aldetik, sektore eta enpresetan. Besteak beste ondorengo hauek aipa ditzakegu:
    - a) Eraldaketa digitalarekin batera lanaldia zeharo murriztu behar da, soldata jaitse-rik gabe. Aldarri historiko hau gure negozioazio kolektiboaren ardatz izan behar da, eta hori bideratzeko lege aldaketak galdegin behar ditugu. 35 orduko astea galdatuko dugu oraindik ere ez duten sektoreetan, eta 32 ordukoa izango da helburua hura indarrean denetan.
    - b) Enplegu bat izateak ez ditu dirusarrera duinak bermatzen. Eraldaketa digitalak ekar dezakeen produktibitate igoera esponentzialak prozesu horietatik baztertutako sektoreetako langileen prekarietatea areagotu dezake, baita langabezia ere; horregatik, pobrezia eta bazterkeria sozialaren aurkako borroka lehentasuna izango da ELarentzat.
    - c) Burujabetza teknologikoa aldarrikatuko dugu eraldaketa digitala klase herrikoiaren zerbitzura jartzeko. Gure helburua da aurrerapen teknologikoen gizartearen beharrik asetzera, hobeto bizitzeko nahari erantzutea eta aurrerapen horien etorkizunari buruz erabaki demokratikoak hartzea, dirua irabazi beste asmorik ez duten multinazional monopolistikoaren inposiziorik gabe. Kasu askotan multinazionalen alternatibak badira, esaterako software librea, eta ELAk ahalegina egingo du hau zabaltzeko.
    - d) Eraldaketa digitalaren ondorioz beharrezkoak izango dira trebezia eta gaitasun berriak eta, horrenbestez, aldaketak egungo eta etorkizuneko langileen prestakuntzan.
    - e) Lanaren sexu-banaketak, lehenago mundu analogikoan bezalaxe, lan mundu digitala baldintzatuko du, non produkzioa eta erreproduzioak banatuta jarraituko duten eta, horrenbestez, genero joerak lan agertoki berriak markatuko dituen.



177. Pandemiak eraldaketa digitala azkartu du, batik bat merkataritza jasaten ari garen moduan. Urrutiko lana ere asko indartu da; bi fenomeno desberdin dira, baina elkar elikatzen dutenak. Horregatik urrutiko lanari buruzko aldarriak eguneratu egin behar ditugu. Lehenik, oso kritiko izan behar gara bere hedapenarekin eta berarekin dakarren klase-zatikatzearekin. Bigarrenik, galdegin behar dugu halako lan bat egiten denean baldintza egokietan izan dadila (aparteko ordurik gabe, lantaldeen intimitatea zainduz, deskonexiorako eskubidearekin, lantaldeen osasuna zainduz, bizi profesional eta pertsonala kontziliatuz...) eta ordain egokia izan dezala. Hirugarrenik, ziurtatu behar dugu enpresek gure esku jartzen dituztela lantaldeen ordezkariak egikaritzen jarraitzeko tresna aproposak.
178. Eraldaketa digitalak eskari berriak sorraraziko ditu, hala negoziazio kolektiboan, nola politika publikoetan, eta ziurrenik egokitze organizatiboak ezartzera eramango gaitu. Indibidualizazioa azkartzen ari diren sektoreetan edo telelana hedatzen denetan gure antolakuntza eredu klasikoa zalantzan jartzen da. Sindikatuak antolakuntzan malgutasunez jokatu behar du, eremu bakoitzari egokitutako eskaintza sindikala egin behar baitugu, eraldaketa digitalaren ostean ere tresna baliagarri izango bagara.
179. Digitalizazioak eragindako pertsonen tutoretza juridikoari ere heldu beharko zaio. Dagoeneko lan arloan sortu diren arazoak (batik bat autonomo faltsuen erabilera medio) areagotu egingo dira lana enplegu digitalaren forma berrietan, eta honek gure zerbitzu juridikoa ere interpelatzen du. Premisatzat hartuta pertsona orok duela babes judizial erreal eta eraginkorra izateko eskubidea, bide juridiko berriak urratu beharko ditugu auzitegietan langileen eskubideak bermatzeko.

## 7. Beste eredu produktibo baten alde

180. Gure eredu produktiboak hainbat gabezia eta arazo ditu: Atzerriko multinazionalerik gehiegizko menpekotasuna, aldaketa teknologiko sakonak jasango dituzten sektoreen pisu erlatibo handia (esaterako automozioarena), gehiegizko energia eta materialen kontsumoa (epe labur edo ertainean eskura izango ez ditugunak) gure planetaren mugekiko errespetu gutxi edota prekarizazioan oinarritutako lehia eredu.
181. Eredu produktiboaren trantsizioak eta trantsizio ekologikoak eskatzen dute erronkaren tamainako industri- eta produkzio-politika. Euskal Herrian errotutako enpresak behar ditugu, egun lanean diharduen jendearen etorkizuna bermatuko dutenak. Halaber, administrazioek esku hartu behar dute eta proposamen zehatzak egin sektore osoak, esaterako merkataritza, jasaten ari diren eraldaketei buruz, ekiditeko ezar dadila gure herriaren eta langileen interesen aurkako merkataritza eredu bat. Eusko Jaurlaritzari eta Nafarroako Gobernuari galdegin diegu 2.300 milioi euro jarri eta funts bana sor dezatela trantsizio hau gidatzeko, enpresa estrategikoak kontrolpean hartzeko edota gizartearen beharren arabera enpresa berriak sortzeko. Ez da posible Euskal Herriko industri-politika bakarraren funtsa beheranzko lehia fiskala izatea, lurraldea atzerriko inbertsioarentzat erakargarria izan dadin; inbertsio publikoak gidatu behar du guztion zerbitzura izango den ehun produktibo bat taxutzea. Aipatutako funtsen xedeak:
- Lehentasuna ematea gizartearentzat, produkzioarako eta biziaren erreproduktioarako ezinbestekoak diren ekoizpen eta zerbitzuei.
  - Planetaren mugekin bateragarri den eredu produktiboa garatzea.
  - Gizon eta emakumeentzako lan-baldintza duinak bermatzea.



182. Hau guztia gauzatzeko beharrezkoa da ere produkzioa bertokiratzea, ekoizpen eta kontsumo zirkuitu laburrak osatzea, zaintza eta osasun eremuei lehentasuna ematea eta sektore feminizatuei zor zaien aitortza egitea, orain arte gutxietsiak izan baitira.
183. Behar-beharrezkoa da trantsizioa ez izatea egun lanean ari diren pertsonen lepotik; ez dugu onartzen enpresak itxi eta langileak kaleratzen dituztenean aurkako inplikazio eta ekintza politiko irmorik ez izatea. Itxiera oro ekidin behar da, baina bereziki ezarri behar dira ELAk enpresa bideragarrien deslokalizazioa galarazteko Nafarroako Parlamentuari eskatu zizkion moduko neurriak; ezin da onartu gobernuek enpresak deslokalizatzen direnean agertzen duten utzikeria, batez ere laguntza publiko handiak jaso dituzten kasuetan, ez baitute administrazioen aldetik oztopo edo presiorik aurkitzen itxiera ekiditeko. Nolanahi ere, enpresak ixten direnean lanean ari direnen bizi-proiektua garatu behar da eta beste enplegu batzuetan hasteko aukera eman.
184. Trantsizio honek Euskal Herriaren burujabetza ekonomikoa bermatu behar du, zer eta nola ekoizten den demokratikoki erabakitzeke aukera, multinazionalen egungo dikta-duratik askatze aldera.
185. Sindikatuak ere egin behar du bere ekarpena trantsizio honi aurre egiteko. Horregatik lantalde espezializatu bat sortu dugu krisi egoerarik gogorrenetarako, konkurtso eta itxiera kasuetarako. Izan ere, egoera horiei modu hobean erantzun nahi diegu, alternatiba produktiboak proposatzeko gaitasun handiagoa izan edota, okerrenean, langileen eskubideak hobeto defenditu. Gainera, sindikatuak inoiz eragin du krisian zeuden enpresak langileen kontrolpeko kudeaketara pasa zitezen; aurrerantzean gure xedea da enpresen berreskurapena izaten denean aintzat har dadila aipatutako eredu produktiboaren aldaketa, lantoki horietan balio solidarioak mantentzea eta areagotu dadila berreskuratutako enpresetako langileen eta sindikatuaren arteko lotura.
186. Sindikatuko Negoziazio Kolektiboko gabinetearen lanak alternatiba produktiboak bilatzerakoan enpresen bideragarritasunari buruzko diagnostiko ekonomiko zehatzak egiteaz gainera gure sindikatuari emango dio bere eragina negoziazio kolektibotik harago izan dezan, gure herrian ezinbesteko aktore gisa agertuz eredu produktiboaren eraldaketari dagokionez.
187. Gure sindikatua erantzun eredugarria ematen ari zaie kaleratzeei Ponentzia hau ez-tabaidatzen ari den testuinguruan. Enpresei, baita etekin itzelak metatu eta soilik aldi bateko arazoak dituztenei ere, kaleratzeko izugarriko boterea ematen dien legediaren kontra egiten ari gara. Behar dugu legedia enplegua mantentzen lagungarri izango dena eta trantsizio produktiboko prozesuak erraztuko dituena, trantsizio horren zama lantaldeei leporatu gabe.
188. Negoziazio Kolektiboko gabinetek lan egingo du gure ordezkariak hobeto prestatzeko gai ekonomikoetan, enpresetan kritika egiteko tresnak emateko, negoziazio kolektiboa egiteko eta krisi egoerei aurrea hartzeko. Honek guztiak gure sindikatua lagunduko dute aldarrikatzen ari garen eredu produktiboari bultzada ematen.

## **8. Euskaraz egingo dugu lan**

189. Euskararen normalizaziorako une kritikoan gaude; EAEn hizkuntza berreskuratzen aurrera egin da, baina impasse batean gaude; areago, kaleko erabilera gutxitu egin da. Nafarroan ustez "aldaketa"ren gobernua denak administrazioetan hobekuntza partzialen bat besterik ez zuen egin, eta atzerakadak ikusten hasi gara: enplegu publikorako hautaketa prozesuetan alemanak euskarak baino pisu handiagoa du. Eta Iparraldean

- aspaldiko beherakadak ez du etenik; Hirigune-Elkargoak hizkuntz-politika komunak noiz sustatuko dituen esperoan gaude.
190. Lan munduan egoera bereziki kezagarria da: enpresen %1ek ere ez du euskara planen bat indarrean. Euskaraz lan egiteko eskubidea egikaritzea salbuespen hutsa da; hau da, euskaldun gehienei ukatu egiten zaie euskaraz lan egiteko aukera. Eta Confebaskek zein CENek euskara planak Lanbidearteko Akordio baten bidez sustatzeko asmorik agertzen ez badute, sindikatuon gain geratuko da errealitate hau aldarazteko bultzada oro.
  191. Euskara Planen negoziazioa modu sistematikoagoan bultzatuko dugu, eta ez soilik arlo publikoan nahiz administrazioen azpikontratetan. Negoziatio kolektiboan gure eskariak aberastu behar ditugu hizkuntz-eskubideei buruzko aldarriekin, eta euskara planen sustapena planifikatu, beste eduki batzuekin egiten dugun bezalaxe. Kontseiluarekin eta LABekin gai honetan dugun aliantzari estrategikoa deritzogu, eta zaindu beharra daukagu.
  192. Administrazioetan ere aukera oso ona dugu aldaketa sakonak egiteko. Datozen 10 urteetan haietako langileen ia erdia erretiratu egingo da. Berritze prozesuak balia daitezke eta epe horretan eremu hauetan diharduten langile guztiak gaitu euskaraz lan egiteko moduan izan daitezen edo, gutxienez, horretarako gauza ez direnak salbuespen izan daitezen. Nafarroan helmuga hori urrunago dago, baina aurrerapauso handia egin daiteke. Berritzea egiteko oztopo nagusia aldi baterako enplegua da; horregatik kontsolidazio prozesuak egin behar dira administrazioetan euskararen normalizazio ziorantz joko badugu. Horrela, nahi dugu gure administrazioak izatea eremu bat non euskaraz lan egin ahal izango den eta, aldi berean, gizarteari eskaini ahal izango dioten zerbitzu normalizatu bat, baita euskaraz ere.
  193. Azkenik, urrats berriak egingo ditugu sindikatuko euskal hiztunekiko errespetuari dagokionez. Euskara gehiago erabiltzen dugu egunerokoan, baina oraindik ez dugu bermatzen nahi duten pertsona guztiek ELAn euskaraz militatzeko aukera izaterik; datozen lau urteetan urratsak egingo ditugu hori lortzeko. Teknologia berrien ezarpenak sindikatu barnean hizkuntz-eskubideak errespetatzeko aukera erraztu dezakete; haien ezarpena sustatuko dugu eta gure militanteen esku jarriko ditugu (itzulgailuak, testu-itzulpen neuronala edo mintzamenaren errekonozimendua bere itzulpenerako). Bitarteko hauek lagungarri izango dira lantokietan ere lantaldeak antolatzeke eta haiekiko komunikazioa euskaraz egiteko (batzarrak, orri informatiboak, boletinak edo pankartak). Halaber, zerbitzu juridikoetan normalizazio plan bat abiatu dugu euskaraz egiten ditugun erreklamazio judizialen kopurua gehitzeko: auzitegietan euskararen aldeko erreferentzia izan nahi dugu.



# 4

## MILITANTZIA INTEGRALA, HOBETO ETA AREAGO ANTOLATUA

194. Kongresu konfederalak benetako esker ona adierazi nahi die ELAko afiliatu eta militanteei. Sindikalista izatea beti da aberasgarri, baina ELAko militante izatea, egunerokoan kontraboterea eta elkartasuna irudikatzea, gogorra eta zaila gertatzen da. Pandemiaren testuinguruan jarduera militante hori areago konplikatu da. Asko sufritu dugu langile-klasearen osasuna eta eskubideak defenditzen, batez ere bizia sostengatzeko oinarriko sektoreetan, zeintzuk gehienbat feminizatuta dauden. Gure ordezkariak egoera emozional eta fisiko oso gogorak jasan dituzte, eta jasaten ari dira oraindik. Horregatik, gure eskerrik beroena helarazi nahi diegu egunez egun gure herriaren konfederazioaren aurpegia eta eskuak direnei.
195. Beste atal batzuetan azaldu dugu une zaila bizitzen ari garela, eta epe labur zein ertainean eskubide laboral eta sozialen aurkako agertokia besterik ezin dugu espero. Esan dugu nola erantzun nahi diegun datozkigun erronka sozial, ekonomiko eta politikoei. Haatik, gure erakundean bertan, beste inon baino sakonago, eraman ditzakegu aurrera geure asmoak, batik bat testuinguru berriek eskatzen dituzten aldaketa eta egokitzapenak. Sinetsita gaude datozen urteetan, oso gogorak izanagatik ere, funtsezko urratsak egingo ditugula gure antolakundea indartzeko. Horrenbestez, hau da nahi dugun sindikatua:
- a) Autonomia eta afiliazio-oinarri zabalekoa.
  - b) Oinarrian ondo errotua, gauza izango dena lantokiak eta sektoreak sindikalizatzeko eta lan harremanak nahiz politika publikoak baldintzatzeko.
  - c) Egunerokoan sindikatuaren eta aldaketa sozialaren eginbeharrekin engaiatutako militanteek sostengatua.
  - d) Genero-ekitatea bermatuko duena, hala gure organizazioen baitan nola ekintza laboral, sozial eta politikoan.
  - e) Lan planifikatua sindikatuko eremu guztietan aintzat hartu eta balioa aitortzen diona, antolakuntza-helburu guztiak hobetzeko zeharkako osagai gisa.
196. Esperientziak erakusten digu antolakuntzari buruzko erronkak epe luzekoak direla. Helburuak finkatzen dira, baina horiek gauzatzeak batzuetan belaunaldi bat baino gehiagoren lana eskatzen du. Horregatik, ez da harrizkoa aurreko kongresuetan egindako formulazio orokor batzuk hein handian bizirik irautea. Hala ere, gai bakoitza aztertzean ohartzen gara aurrera egiten ari garela. Erakunde dinamikoa gara, eta alde horretatik beti "erreformatan", agertoki eta eskakizun aldakorrei ahalik hobekien egokitzen garelarik. Benetan uste dugu berrikuspen gaitasun hau eta etengabeko antolakuntza hobekuntza saioa gure eredu sindikalaren indargune bat dela.
197. Hobekuntza iraunkorreko prozesuak dira, eta etorkizunean ere sortzen diren erronkei aurre egin beharko diete. Orain dagoeneko lan munduan eraldaketa handiak gertatzen ari dira -esaterako, digitalizazioa- eta hauek etorkizunean areagotu egingo dira. Erronka handiak ditugu, eta ponentzia honek ezin die uneotan erantzunik eman. Horregatik, datozen urteetan hainbat eztabaidari ekin behar diegu kolektiboki; Batzorde Eragileari dagokio horiek garatzeko oinarriak eta baldintzak ezartzea.

## 1. Afiliazioan eta hauteskunde sindikaletan hazkundeari eutsi

198. Afiliazioa eta hauteskunde sindikalak ezinbestekoak dira langile-klasearen defentsa sendoa egiteko. Afiliazioak nortasuna eta konpromiso kolektiboa sortzen du; sindikatuaren autonomia bermatzen du, eta aukera ematen dio klase-defentsarako nahiz gertuko borroka sozialetarako egiturak garatu eta dinamikak bultzatzeko. Esan dugun legez, antolakundea etengabe eraldatu behar dugu. Bada, afiliatorik gabe etengabeko egokitzapen hori ezinezkoa litzateke.
199. Sistematikoki afiliatzea eta hurreratzen diren pertsonak antolatzea ELAko delegatu eta militante guztien oinarritzko eginkizuna da. Antolakuntza horren bidez botere sindikala eraikitzen dugu egunez egun lantokietan eta sektoreetan. Afiliazioa eta sindikalizazioa eskutik doaz.
200. Azken urteetako gure datuek erakusten dute posible dela afiliazioa gehitzea, baita tesuingurua kritikoa denean ere. Une horietan sindikatua inoiz baino premia handiagoa da, batez ere sektorerik prekarioenetan. Sindikatu egiten den alta bakoitza arrakasta izugarria da, haren atzean lan handia eta konfiantza ematen duen antolakunde bat dagoelako.
201. Sindikatua unean-unean erantzuna ematen saiatzen da gure eskubideen kontrako erasoei. Baina horretaz gainera ezinbestekoa da afiliazioa era planifikatuan lantzea, lan-planetan afiliazio helburuak finkatuz. Arlo honetan hobetzeko aukera badugu, porentzia honetan zehar ikusiko dugun moduan. Gainera, afiliatuak areago fidelizatzeko erronka daukagu, dagoen txandakatzea murrizteko, batez ere sektorerik prekarizatuenetan.
202. Afiliazio datuak analizatzerakoan nabarmendu beharra dago sektore feminizatueta eta batik batik prekarizatueta egiten ari garen lana. Gaur ELAko afiliatuen %46tik gora emakumeak dira. Azken urteetako afiliazio igoera garbiak emakumeei esker izan dira, eta hau ez da kasualitatea. Izan ere, emakumeak baitira prekarietatea gehien pairatzen dutenak, eta gogor ari gara lan egiten euren beharrezko erantzuteko, sarri lorpen aipagarriekin. Bide horretatik jarraitu behar dugu, ahal dela erantzun hobea eman emakumeen interes eta beharrei.
203. Hauteskunde sindikaletan lortzen ari garen emaitza positiboek ere adierazten dute zer nolako zilegitasuna aitortzen digun langile-klaseak lantoki eta sektore bakoitzean, ordezkarien kreditu sindikalarekin batera, hau ezinbestekoa baita gure ekintza sindikala garatzeko. Lan sistematiko bikaina egiten dugu, eta honek gure legitimitatea etengabe berresteko aukera ematen digu; halaber, eremu berrietan ezartzea erdiesten dugu. Datozen urteetan lan planifikatu horri eutsi behar diogu langile-klasearentzako tresna baliagarria izateko eta haretako gehiengoaren sostengua biltzeko.
204. Orobat, urratsak egin behar ditugu gure ordezkariak benetan errepresentatiboak izan daitezen, eta lantokietako genero, sexu-hautu, hizkuntza eta jatorri aniztasunaren isla izan. Horretarako hautagaitzak garaiz landu behar dira. Lan hau funtsezkoa da sektorerik prekarizatueta, eremu hauetako langileek beren burua ELAren zerrendetan islatuta ikus dezaten.
205. Gure genero-ekitaterako plana hauteskunde-dinamikan ere gauzatu behar da. Ordezkaritza handiagoa izateko eta eremu guztietara iristeko, batik batik feminizatueta eta prekarizatueta, ezinbestekoa da emakumeen interesak geureganatzea hauteskunde sindikaletako diskurtsoetan, plangintzan eta antolakuntzan ere.



## 2. Enpresak eta sektoreak sindikalizatu indar-erlazioa hobetzeko

206. Afiliatzea eta ordezkari sindikalak izatea beharrezkoa da, baina ez da nahikoa botere sindikala izateko. Horregatik, Kongresu konfederal honek uste du sindikalizazioa izan behar dela datozen urteetarako helburu estrategikoetako bat.
207. Sindikalizazioa da afiliatuak lantokietan eta sektoreetan modu eraginkorrean antolatzea; bere buruaren kontzientzia duen kolektibo gisa eratzea, zeinak errealitatea irakurtzen duen eta lan-plan bat finkatzen duen bere lan baldintzak hobetzeko, baita konfederazioaren agenda bultzatzeko ere. Eginkizun zaila eta iraunkorra, kontutan izanik lan mundua gero eta aldakorragoa dela eta langileen biografia, gero eta zatikatuagoa.
208. Sindikalizazioarekiko gure kezka ez da berria: Beti izan da gure jardueraren erdigunean. Izan ere, urtetan antolakuntza-egokitzapen handiak egin ditugu hain zuzen hobeto egin ahal izateko. Hala ere, uste dugu bultzada berri bat eman behar zaiola sindikalizazio lan honi, datozen urteetan aldaketak eginez modu sistematiko eta planifikatuan lantze aldera.
209. Horretarako sindikalizatu beharreko eremuetarako plan zehatzak garatuko ditugu, sektore eta enpresa mailan, diagnostiko konkretuetatik abiatu eta helburuak finkatuz. Plan horiek sektore bakoitzaren ezaugarri eta beharrezkoak egokitu behar zaizkie.
210. Kasu askotan ez gara hutsetik abiatuko. Behar-beharrezkoa da atal sindikaletako eta lantaldeetako afiliatu-militanteen artean ardurak erabaki eta eginkizunak banatzea. Kolektibo horiek bilera dinamika bat izan behar dute, eta helburu zein eginbeharrak modu kolektiboan erabaki: afiliazioa, ordezkaritza, negoziazio kolektiboa, prestakuntza, parte hartzea federazio, eskualde eta konfederazio mailan, etab. Halaber, jarraitu behar da tresna jakin batzuk erabiltzen, esaterako aldizkako informazio-boletinak, afiliatuen batzarrak edo batzar orokorrak, gure proiektuarekiko atxikimendu gehiago bilatzeko.
211. Aipamen berezia merezi du bisita-talde militanteek hainbat lantokitan barreiatutako sektoreetan egiten duten lana. Langileekiko zuzeneko harremana eta lan pertsonalizatua sektore horiek sindikalizatzeko modu garrantzitsua da, asko feminizatuta daudelarik.
212. Lan egingo dugu formazioak leku garrantzitsua har dezan sindikalizazio planetan. Prestakuntzak militanteen esku jartzen ditu jakintza organizazional, pertsonal, ideologiko eta juridikoak, zeintzuk ziurrenik indartu egingo diren erreferentzia kolektiboa, atal sindikalen bizi-batasuna eta lantaldeena sektoreetan. Bilerak dinamizatu, taldelana egin, dinamika kolektiboak gidatu, eskubideak ezagutu, gai laboral eta sozialetan sakondu... hauek guztiak prestakuntza arlotik sustatu beharreko ikasketak dira; indar kolektiboa emango digute eta lan sindikalaren garapena erraztuko dute.
213. Sindikalizazio planak bezain garrantzitsua da tresnak izatea jarraipena, ebaluaketa eta planifikatuta dagoenaren egokitzapena modu sistematikoan egin ahal izateko.
214. Genero-ekitatea sindikalizazio planetako osagai nagusietako bat izango da. Egiten dugun guztian dagokion genero-analisia egin behar dugu, erabaki ea gure ekintzak genero ezberdintasunak sortzen edo erreproduzitzen dituzten. Eta hortik aurrera, neurriak hartu hori ekiditeko eta eremu bakoitzean genero-ekitatean aurrera egiteko. Era berean baldintzak sortzea atal sindikal eta sektoreetan emakumeen parte hartzea bermatzeko oinarrizkoa da genero ekitatean aurrera egiteko, baita eremu honetan ere.
215. Sindikalizazioa eta negoziazio kolektiboa elkar indartzen dira. Sindikalizatuta, antolatuta dagoen enpresa batek negoziazio dinamikari heltzerakoan a priori arrakasta handia-

- goa izango du. Baina hala ere, batzuetan gatazka edo negoziazio prozesu batek darama lehenago ez zegoen antolakuntza kolektibora. Edonola ere, kalitatezko negoziazioa izango da langileen babes bereganatzeko antolakuntza kolektiboa baldin badago. Gainera, antolakuntza kolektiboa da konektatzeko aukera ematen duena, beharrian, nahi eta eskari konkrituak zuzenean ezagutu eta artikulatzeko bidea irekitzen duena, negoziazio prozesu bat baldintzarik onenetan orientatzeko.
216. Negoziazio kolektiboari buruzko atalean aipatu dugu dagoeneko prekaritatea gure negoziazio estrategiaren erdigunean kokatu nahi dugula. Antolakuntzaren ikuspuntutik horrek eskatzen du gure atal sindikal eta sektoreetako lan-planek lan-ildo eraginkorrak jasotzea, prekaritateari bere gertueneko eremuan heltzeko. Inkesta eta diagnostiko zehatzak egitea, informazio eta testigantzak batzea, dinamika kolektibora pertsona eta kolektibo prekarizatuak (azpikontratatuak, autonomo faltsuak...) ere biltzea baliagarri izango da gure negoziazioari orientazio egokia emateko. Sinetsita gaude gauza garestuak enpresa edo sektore baten baitan kolektibo ezberdinek izan ditzaketelako interes anitzak eta helburu propioak artikulatzeko. Kasu askotan lantoki berean enpresa desberdinetako langileak biltzen dira (enpresa nagusia, auxiliarrak...). Kasuotan jende hau guztia antolatzeko modurik eraginkorrena bilatu behar da, enpresa jakin batekoak diren ala ez alde batera utzita.
  217. Halaber, lanaldiaren zati handi batean telelanean diharduten langileak sindikalizatzeko erronka daukagu. Telelanak ziurrenik iraun egingo du, eta saiatu behar gara gero eta modu indibidualizatuagoan lan egiten duten kolektibo hauekin harremanetan jartzen, informazioa ematen eta antolatzen.
  218. Enpresa eta sektoreetako antolakunde kolektiboa den aldetik, sindikalizazioak baldintzarik hoberenak sortzen ditu sindikatuaren diskurtsoa eta agenda politiko eta soziala gure afiliatu-oinarri guztiarengana irits dadin. Fiskalitate, aurrekontu, berdintasun eta atzeritarrentzako politika publikoetan ere eragin behar dugu, baita sistemaren ordezko alternatiba ekofeminista eta antirrazistak sustatu, trantsizio sozial eta ekologikoan aurrera egiteko. Hau posible izan dadin, federazio eta eskualdeetako arduradunek kontu izan behar dute gai hauek benetan eta modu iraunkorrean lantzen direla, beharrezko denbora eskainiz, eta bermatuz eremu sindikalizatuak dinamika konfederalarekin bat egiten dutela. Gai sozialei heltzea funtsezkoa da gure afiliatu eta militanteak ideologizatzeko.
  219. Eremu honetan hobetu behar handia dugu. Sarritan eguneroko urgentziek eta negoziazio kolektiboaren beraren konplexutasunak eragiten dute auzi sozial eta politikoei ez diegula behar adina arreta ematen. Horregatik, besteak beste, eremu hau baliabide berriekin indartu dugu (Ekintza Sozialeko arloa sortu dugu). Talde honen helburua da sindikatu guztian, eta sindikatutik kanpo ere, gai sozialak hobeto lantzen laguntzea.
  220. Finean, sindikalizazioarekin eremu laboralaren ekintza indartzeaz gainera gizarte eredu eraldatzeko aktibazio soziala ere sustatu nahi dugu, hain beharrezkoa den mobilizazio soziala azkartuz. Ardura hau sindikatu guztiarena denez, gure ardura kolektiboa da aldarri hauek lantokietara iristea eta sindikalizazio planetan txertatzea, haiekiko langileen atxikimendua eta aktibazioa landuz. Sinetsita gaude Arlo Sozialeko taldearen laguntzaz norabide horretarantz urrats handiak egingo ditugula.
  221. Sindikalizazioari eskainitako epigrafe honetan enpresa txiki eta ertainak ere aipatu behar ditugu. Lan handia ari gara horietan egiten; afiliazioan eta hauteskunde sindikaletan izandako emaitzek hala adierazten dute. Enpresa hauetako ordezkarien lana ez da erraza izaten. Baina enpresa txikietan ere badira sindikalizatzeko eta antolatzeko aukerak, baita negoziazio kolektibo eraginkorra garatzeko ere. Horretarako enpresa era



honi egokitutako planak egin behar dira: diagnostiko egokiak egin, helburuak finkatu, ekintzak, eta jarraipen zein ebaluaketa prozesua ere egin.

### 3. Militanteak antolatu lan eremuan eta eraldaketa sozialean eragiteko

222. Ponentziaren aurreko ataletan garatu ditugun helburu laboral, sozial eta politikoei ekiteko modu bakarra dago, oinarrian behar bezala antolatutako militanteen konpromisoa eta eguneroko lana. Proiektu kolektibo militante bat osatzen dugu; militanteak dira borroka sindikalaren benetako protagonistak, eta hauek sendotzeko daude sindikatua- ren gainerako egitura eta zerbitzuak. Azkenean, sindikatua da bultzada militanteak une bakoitzean eraikitzen duenaren emaitza.
223. Sindikatuak sor dezakeen egitura militanteak inoiz ezin du ordezkatu bere helburuak iristeko oinarri militante zabalagoa. Areago, egituraren kezka nagusia izan behar da hain zuzen oinarri militante hori zabaldu eta indartzea. Militanteak egundo ez dira nahikoak. Eraldaketa asmoa duen erakunde orok gero eta militante gehiago behar du. Eta garai zailak dira hauek antolakunde kolektibo eta konpromisozko balioak finkatzeko.
224. Oinarri militante hori zabaltzea gure lanaren oinarritzko ardatza izango da etorkizun hurbilean. Lan honen menpe daude ponentzia honetan ezarritako helburu gehienak. Eta militantzia kontuan emaitzak nahi baditugu gai hau hobeto landu behar dugu.
225. Militantzia lantzea da, lehenik, zaintzea dimentsio ideologikoa eta konfederazioak egiten duen errealitatearen irakurketa zein programarekiko lerrokatzea. Bigarrenik, esan nahi du ikastea zer eta zertarako egiten dugun kolektiboki eztabaidatu eta erabakitzea. Eta hirugarrenik, militatzea da parte hartzea eta ekarpena egitea organizazioan erabakitako lan eta ekintzetan. Beti ere ELAren moduko erakunde bateko kide eta militante sentitzeak dakarren ilusioaz eta aberastasun pertsonal zein kolektiboaz. Militantziak osagai emozional ukalezina du; hau zaindu eta aintzat hartu nahi dugu gure egunerokoan.
226. Edozein militantzia eredu ez da baliagarria guretzat. Gure eredu inklusiboa eta plurala da, emakumeen parte hartzea bermatuko duena, eta horretarako baldintzak sortu behar dira. Halaber, berariaz landu behar dugu aniztasunaren integrazioa (jatorrikoa, funtzionala, sexuala...) gure gune militantean, beren jarduera militantea euskaraz garatu nahi dutenek hala egiteko aukera izan dezaten zainduz. Militantearen lanaren neurri ezin da izan presentzialismoa eta heroi moduan beti prest egotea, izan ere, ikasi dugu eredu honek diskriminazioak sor ditzakeela. Gure militantzia eredu, horrenbeste, bateragarri izan behar da "bizi guztiekin" (zaintza lanak, denbora pertsonala, beste arloetako militantziak, osasuna zaintzea, etab.)
227. Eredu inklusiboa ez ezik militantzia integrala da gure helburua. Zehatzago, datozen urteetan jauzi handi bat egin behar dugu militantzia sozialaren sustapenean. Hau ere gure helburu estrategikoa da. Horretarako militanteen inplikazioa areagotu nahi dugu lan mundutik haragoko auzi sozialetan; auzi sozialetako militanteak ELAra erakarri eta lan egin gure antolakunde ezagutu eta bertan gustora egon daitezten; gai sozialetan dagoeneko engeaiatuta dauden ELAko militanteak antolatu eta militanteak gaitan antolatzeke aukera emango diguten egitasmoak sortu. Militantzia soziala kasu askotan tokiko eremuan antolatuko da; honek behartzen gaitu gure funtzionatzeko modua errealitate horri egokitzera. Sortu berri den Ekintza Sozialeko taldeak lan hau organizazio guztietan bultzako du.



228. Militanteak ez dira berez sortzen; hau planifikatu beharra dago, eremu bakoitzean gure errealitate militanteari buruzko diagnostikotik abiatuta. Militanteok ezagutu, antolatu eta ondo zaindu behar ditugu, beti ere hurbiltasunez eta zaintza kolektiboa eginez; etengabe prestakuntza eskaini hainbat gairi buruzko sindikatuaren posizio ideologikoa ezagutzeko tresnak izan ditzaten; baldintza egokiak sortu parte hartze aktiboa izan dezaten nukleo militanteetan, hartara ahalduntze prozesuak garatze aldera; konpromisoak eta eginkizun zehatzak beren gain har ditzaten aukerak eta baliabideak eman...
229. Konpromiso kolektiboa hartzen dugu geure gain militantzia hedatzeko lana sindikatuko arduradun guztien agenda eta lan-planetan ager dadin, koadroetatik hasi eta atal sindikal zein sektoreetako sindikalizazio planetaraino. Plan horietan militantzia lanak helburu propioak izan behar ditu, baita horiek iristeko ekintza konkrituak ere. Emaitza ezberdina izatea nahi badugu beste era batera egin behar dugu lana.
230. Beraz, hori kontutan izanik militanteen antolakuntza, egituratze eta parte hartzean urratsak egiten jarraituko dugu. Enpresetan hasi (atal sindikalak, sektore bilerak...) eta organoetaraino (eskualde-batzorde federalak, eskualde kontseiluak...). Duela gutxi azken hauen araudiak aldatu dira hain zuzen posible egiteko, besteak beste, organoetan inplikazio militante handiagoa. Eremuok zaindu behar ditugu, behar beste dinamika eta eduki emanez, eta baldintza egokiak sortuz militanteen parte hartze aktiboa sustatuko duten eremu erakargarriak izan daitezten.
231. Interesgarria da genero plan estrategikoan aurreikusitako parte hartze espazio berrien aipamen berezia egitea, zehazki emakumeen sozializazio eta kontzientziazio guneena. Esperientzien elkartruketik abiatuta kontzientzia hartu behar dugu emakumeek (banaka zein kolektibo gisa) pairatzen dituzten eskubide urraketek buruz. Genero interes estrategikoak artikulatu eta proposamenak landuko lirateke sindikatuaren estrategian eta erabakietan aintzat har daitezten. Ahalduntze militante ibilbideak landuko dituzten espazio berriak direnez, jakina da sindikatu guztiarentzat ikasketa interesgarria eskainiko dutela.
232. Azkenik, ELAko militante garen aldetik, kontziente izan behar gara sindikatuko etorkizuneko koadroen berritzea hein handian gaurko lan militantearen baitakoa izango dela eta ilusiozko eginkizun honetan beste pertsona batzuk erakartzeko eta integratzeko ahalmenaren araberakoa. Lidergo eredu pluralak, ez baztertzailleak, behar ditugu sindikatuko eremu ezberdinetan, eta horretarako ahal dugun guztia egingo dugu militanteen antolakuntza, ideologizazio eta ahalduntzea lantzeko.

#### **4. Genero-ekitaterako plan estrategikoa sindikatu guztian garatu**

233. Aurreko kongresuan ontzat eman genuen genero-ekitaterako antolakuntza aldaketa prozesua. Sindikatu feminista izateko borondatea adierazi genuen, eta horregatik erabaki genuen goitik behera arakatuko genituela gure erakundea, estrategiak eta jardunbideak, genero-ekitate bermatze aldera eta egiten dugun guztian emakumeen interes estrategikoak sustatzearen.
234. Diagnostiko prozesua luzatu egin da, batez ere erronka hasieran uste genuena baino handiagoa delako. Diagnostiko horrek adierazi zigun ELAn ere genero ezberdintasunak birsortzen ditugula, izan ere, historikoki erakunde maskulinizatua izan baikara. Ez dugu genero analisi egokirik egin; horregatik, interes orokorraren eta neutraltasunaren izenean, batik bat gizonen beharizanei eman diegu erantzuna, nahi gabe izan arren.



235. Diagnostikoa burutua, genero-ekitaterako plangintza bat landu dugu, hainbat eremu-tako arduradun eta militanteekin batera. Plangintza prozesua ere, zeina oso parte-hartzailea izan den, luzatu egin da, baina emankorra eta aberasgarria gertatu da. Bere emaitza da genero-ekitaterako plan estrategikoa, sindikatua datozen lau urteetan gidatuko duena.
236. Plan estrategikoaren zentzua islatzen duen terminorik zehatzena agian erantzukidetasuna da, bere garapena sindikatuko egitura eta arduradun guztiei baitagokie. Izan ere, genero-ekitateari buruzko lana guztiz zeharkakoa izan dadin sindikatu guztiak gauzatu behar du, bere egitura eta jardura osoak, lehenetsunak, helburuak eta jardunbideak finkatuz. Halaber, planak jarraipen eta ebaluaketa sistema bat ere dakar berarekin.
237. Planak genero berdintasuna bermatzeko garatu beharreko lerroak finkatzen ditu, langileen eskubideen defentsan, negozioazio kolektiboan, zerbitzu juridikoetan, hauteskunde sindikaletan, baita mobilizazio eta kanpainen ere. Planak prestakuntzan ere badu eragina; formalean, baina baita informalean ere, sindikatuaren sortzen dugun jakintzaren zati handi bat modu informalean iritsi eta hedatzen baita. Gainera, arestian aipatutako emakumeentzako sozializazio eta kontzientziazio guneak eratzeko helburua ere finkatzen du.
238. Azkenik, Planaren beste ardatz nagusi bat da gizarte eredu; helburua da ikusmolde feminista sindikatuak gizarte ereduari eta politika publikoen inguruan garatzen dituen proposamen eta ekintzetan modu egokian txertatzea.
239. Beraz, Planak sindikatuaren ekintza sindikal eta sozial guztian izango du eragina, baita hauek garatzeko barne prozesuetan ere. Hori egingarria izan dadin koordinazio egitura berriak sortu behar dira, egitura ezberdinei ezarritako helburuen zein Planean bertan jasotako jarraipena egin ahal izateko. "Genero-arkitektura" deituko diogun zerbait eraikiko dugu, hots, erantzukidetasuna, transbertsaltasuna eta plana eremu guztietan bultzatzea posible egingo duen diseinu organizatiboa, sindikatuko militante guztiengana iristeko erronka positiboarekin.
240. Datorren kongresuarterako epean izango dugun erronka handienetako bat Genero-ekitaterako Plana izango da, sindikalizazio, militantzia sozial eta plangintza egokiarekin batera (hau hurrengo epigrafean garatuko dugu). Badakigu bidea ez dela erraza izango, ez eta azkarra ere, baina erronkei aurre egingo diegu konpromiso eta ikasketa kolektiboaren bidez. Badugu barne adostasuna, beharrezkoak diren baliabideak eta borondatea ibilbide saihestezin hori egiteko izan nahi duguna izateraino: sindikatu feminista, hau da, sindikatu hobea, langile-klase "oso"aren beharrian, nahi eta interes estrategikoei erantzuna emango diena.

## **5. Lan planifikatuagoa eraginkorragoak izateko eta hobeto militatzeko**

241. Sindikatua batik bat erakunde erreaktibo bat da, noski. Langile-klaseak unean-unean erantzun behar die, sarri premiaz, bata bestearen atzetik egiten dizkioten erasoei. Bestalde, ordea, sindikatuak estrategia bat, bere helburuak zaindu behar ditu; horiek gabe leher egingo luke kapitalari eta enpresei eman beharreko berehalako erantzuna ematen. Horregatik azken urteetan, baita azken kongresuan ere, nabarmendu dugu eraginkorrigo izaten lagunduko gaitun plangintza behar dugula. Ez gara hutsetik hasi; aurrera egin dugu: ondo asko dakite hori ELA dena, egiten eta esaten duena begi txarrez ikusten dutenek; baina argi dago sindikatuaren maila guztietan hobetzeko tarte handia badugula, zuzendaritza konfederaletik hasi eta atal sindikal edo beste lantal-

- deetaraino. Plangintzaren kultura sustatu eta balioa aitortu behar zaio organizazio guztian.
242. Gure asmoan dagoen plangintza horrek hiru xede ditu: eraginkortasuna, efizientzia eta hobeto militarzea. Hau da, gure helburuak lortu nahi ditugu horretarako egokiak diren baliabideak erabiliz, eta militantziari zentzu hobea, motibazio eta horizonte handiagoa eman; gainera, militantzia bateragarri izan behar da beste denbora eta espazio batzuekin, beste militantziekin, zaintzarekin, denbora pertsonalarekin, ongizatearekin eta osasunarekin.
243. Datozen urteetan sindikatu guztian urrats kualitatiboak egingo ditugu modu planifikatuan lan egiteko, zuzendaritzatik hasi eta enpresa zein sektoreetako sindikalizazio planetaraino. Baina bultzada hori ezin da boluntarismo hutsa izan. Aurrera egiteko bitartekoak jarriko ditugu eta Kudeaketa Sistema bat garatu eta gauzatuko dugu, lan planifikatua egiteko lagungarri izango den tresna eraginkorra. Ez gara hutsetik hasiko; azken urteetan Kudeaketa Sistema horren definizioa aski aurreratua daukagu, eta erabilgarria dela egiaztatu dugu.
244. Kudeaketa Sistemak aukera emango digu gure ohiko eginkizunak erakunde osoari eragiten dioten prozesuetan kokatzeko eta ulertzeko; helburuak eta ekintzak planteatzera eramango gaitu, baita adierazleak finkatzen ere, zeintzuk uneoro esango diguten erabakitakoa ondo burutzen ari garen. Lagungarri izango da funtsezko kontu bat bereizteko: zeintzu helburu dauden guztiz gure esku, eta zeintzuk ez. Gainera, Kudeaketa Sistemak badu metodo bat egiten dugun guztian hobekuntzak kolektiboki definitzeko. Bestalde, sindikatuarentzako oinarritzko arlo batean fruituak ematen ari da dagoeneko, bilerak prestatu eta egiterakoan, baita bilera ostekoan eta haietan hartutako erabakien zein eginkizunen ebaluaketan.
245. Kudeaketa Sistema eta Plangintza ez dira kontu tekniko hutsak. Batez ere politikoa den gure lana (afiliazioa, hauteskundeak, militantzia, negoziazio kolektiboa, ekintza politiko eta soziala, defentsa juridikoa...), eta lan horien zerbitzura dauden arlo guztiena antolatzeke tresnak dira. Sindikatuaren lan guztia antolatzen lagungarri den heinean gure erakundearen izaera kolektiboa sendotuko du. Halaber, Kudeaketa Sistemak gure laneko metodoak identifikatu, erregistratu eta hobetzeko aukera emango digu, jakintza kolektiboa sortu eta partekatzeko, ezagutza indibidualetik haratago.
246. Kudeaketa Sistemaren eta Plangintzaren ezarpena mailakako prozesua izango da. Jakina, horretarako prestakuntza eta laguntza behar dugu. Eta oso errotuta dauden inertziak eta egiteko moduak aldatu beharrean izango gara. Baina erronka estrategiko honi gure buruarekiko erabateko konfiantzaz helduko diogu. Gure erakundeak urte askotan erakutsi du egundoko gaitasuna duela goitik behera aldatu, egokitu eta hobetzeko, maila guztietan: organizatiboa, ideologikoa, programatikoa, estrategikoa eta kudeaketakoa.

## 6. Beste jauzi bat zerbitzu juridiko paregabeentzat

247. Azken urteetan gure eskubide laboral eta sozialak etengabe higatu dira bata bestearen ondoren ezarritako lan erreformen ondorioz. Lan harremanen eredia zeharo aldatu da, enpresen alde bakarreko boterea sendotu baitu lan baldintzak, kontratazioa eta kaleratzeak erabakitzerakoan. Esan daiteke lan zuzenbidearen eginkizuna, ezberdintasunak orekatu eta konpentsatzekoa, txiki-txiki eginda geratu dela erreformaz erreforma.



248. Haatik, ELAko zerbitzu juridikoek egunero baliatzen dituzte erreformak utzi dituen zirrikituak hura auzitegietan indargabetzeko, hala lan jurisdikzioan nola administrazioarekiko auzibidean. Nahiz eta malgutasuna ezarri den, argi dago enpresek eta administrazioek ezin dutela inpunitate osoz jokatu, ezin dutela hartzen dituzten erabakien gaineko kontrol judiziala saihestu. Horregatik, zerbitzu juridiko eraginkorra izatea, langile-klasearen eskubideen defentsan erreferentzia dena, ezinbestekoa da egoera honetan erantzun egokia emateko.
249. Horrenbestez, halaber, nabarmendu behar da zein lan itzela egiten duen, kalitate zein kantitate aldetik, lantalde juridikoak; hau osatzen duten pertsonak eguneroko lanean konpromiso eta prestakuntza tekniko maila aipagarria dute. Halaber, beti da posible eta beharrezko kalitate hori hobetzen saiatzea eta eremu juridiko-laboralean berrikuntzak egitea; beraz, erronka honi hurrengo aldian egingo diogu aurre.
250. Kongresu honetan antolakuntza arloan finkatzen ditugun helburu estrategikoek zerbitzu juridikoak ere interpelatzen dituzte.
251. Noski, zerbitzu juridikoa afiliatzerakoan kontu garrantzitsua da. Jende asko sindikatura hurbildu eta afiliatzen da berehalako arreta juridikoa jaso nahian; honek agerian uzten du zerbitzu honek afiliazioaren garapenerako duen balioa. Lehen arretako eskaria maiz ELAko lokaletan bertan egiten da; ondorioz, tentsio organizatiboari eutsi behar diogu gure lokaletan arreta egokia eskaintzeko eta militanteak ere eginkizun honetan inplikatzeko.
252. Halaber, nabarmendu nahi dugu zerbitzu juridikoak informazio oso ugaria darabilela eskubide laboral eta sozialen urraketari buruz, banakoen eta kolektiboen kasuan. Hau sindikatu guztiarentzako balio oso handiko tresna da; horregatik, bere kudeaketa eta sistematizazioa hobetu beharra dago, ekintza sindikala aberats dezakeen ezagutza kolektiboa sortze aldera.
253. Gure zerbitzu juridikoak zeregin nabarmena du ezberdintasunaren eta emakumeen eskubideen urraketaren kontrako borrokan ere. Genero ikuspegia sindikatuaren lan-ildo guztietan txertatzeko estrategia orokorraren baitan genero-ekitaterako planak zerbitzu juridikoari ere eragiten dio.
254. Diagnostikoa egin dugu: zerbitzu juridikoek emakumeen kontsulta eta salaketa kopuru oso handia lantzen duen arren, egungo lan egiteko moduak oraingoz ez du aukera eman berariazko analisi bat egiteko, salaketa horiek generoaren ondoriozko diskriminazio eta ezberdintasun sozialari lotze aldera.
255. Genero dimentsioa zerbitzu juridikoaren eguneroko jarduera juridikoan txertatuko dugu, berritzeko modua eman diezagun, genero kontuan bidea urratzen duten aurrerariak sortu eta hari buruzko ikasketa juridikoak ELAren ekintza sindikal guztian eragina izan dezan, baita inspiratu ere.
256. Apustu hau gauzatzeko egin beharrekoak:
- Lan-kargak aztertu eta lan egiteko moduak zein komunikazio sistemak berriz pentsatu.
  - Zerbitzu juridikoetako kideak modu egokian trebatu edo prestatu.
  - Generoko informazio esanguratsua jasotzeko sistema berri bat sortu.

- d) Zerbitzu juridikoen parte hartzea areagotu, nola egungo eskualde-dinamiketan, hala plan estrategikoan aurreikusitako emakumeen sozializazio eta kontzientizazio guneetan.
257. Estrategia hau bultzatzea erronka handia da, baina merezi du, noski, aukera emango baitigu lanaren eraginkortasun eta kalitatea hobetzeko; sindikatuari ekarpena egiteko estrategia sindikala definitzerakoan lan merkatu gero eta prekario eta feminizatuago honetan, eta gure lantalde juridikoaren esperientzia, ezagutza eta lana hobeto baliatu eta aintzat hartzeko.



## GURE HELBURUEKIKO KOHERENTE DIREN ALIANTZA ETA SINERGIAK

258. ELAren aburuz erakunde sindikal, sozial edo politiko bakoitzak finkatzen dituen aliantzak dira haren benetako neurria, etiketak, historia eta adierazpenik ospetsuenak alde batera utzita. Eta logikoa da hala izatea: ez gara gure buruaz esaten duguna, egiten duguna baizik.
259. Bigarren atalean arbuiatu dugu politikaren zati handi bat jausi dela deritzogun oportunitismoa eta taktizismoa. Baina salaketa hau bera eremu sindikalari ere badagokio.
260. ELAk aliantza estrategiko sendoak egiten ditu, oinarrizko hiru konturen inguruan:
- Helburu programatikoak, esaterako ponentzia honetan adieraziak
  - Erakundeek aldezten duten eredu sindikala
  - Giza-eskubideekiko eta herrien eskubideekiko konpromisoa

### 1. Soilik gehiengo sindikalak betetzen ditu aliantza estrategikorako baldintzak

261. ELA harro dago eredu eta kultura sindikal argia duelako, egunez egun praxian egiaztatzen dena: kontzertazioaren aurrean, kontrabotere eredu; beharrezko denean gatazkarako eta grebetarako prest dagoen antolakundea; negoziazioari ekitean edukiei ematen dien erabateko lehentasuna; konpromisoa prekaritate eta diskriminazioaren aurkako borrokan; patronalari abantaila ematen dioten gutxiengoaren akordioei uko egitea...
262. Eredu eta kultura horrek, zeinak egunerokoan gure buruarekiko exijentzia handia dakarren, aliantzen aukera guztiz baldintzatzen du. ELAren ustez, soilik "euskal gehiengo sindikala" delakoak betetzen ditu aliantza sindikal estrategiko bat osatzeko baldintzak. Gehiengo sindikala ez da, eta ez da sekula izan, kontu aritmetiko hutsa: osatzen duten erakundeek urte askoan irudikatu dute -eta oraindik ere irudikatzen dute- espazio sindikal bat zeina alternatiba den gurean UGT eta CCOO diren kontzertazio sozialaren aldeko organizazioekiko. Gainera, gure herriaren burujabetza eta kulturarekin engaiatuta daude.
263. Gehiengo sindikalak, eta bere baitan ELAk, baditu bere kontraesanak. Hala izan da beti, baita izango ere etorkizunean. Ez gara erakunde berdinak; gure eredu eta helburuak ez datoz guztiz bat eta, ondorioz, baditugu geure desadostasunak. Baina ELAren iritziz ikuspuntu estrategikotik lankidetzaren eremu horren alternatibarik ez dago.
264. Gehiengo sindikalak argi erakutsi du egingarria dela ekintza laboral, sozial eta politiko bat mugatuko ez dena erakunde eta instituzio sistemikoek marraztutako eremu estuetara. Beti eraldaketa gogoan duela lan egin izan du, mugimendu sindikala eta euskal gizarte osoa politizatze baliagarri izan da, eta sindikatu bakoitzak bere aldetik izan zezakeen eragin politikoa nabarmen areagotu du. Azken greba orokorrak, 2020ko urtarrilaren 30ekoak, erakutsi zuen baduela gaitasuna ere munduko herrialde gehienetan ikusten ez diren aliantza sozialak eratzeko. Eta, lehenago esan dugun bezala, lortu dugu gure herria Europar lider izatea gatazka eta grebetan.

265. Jakina da estatu eremuko sindikalismoarekiko egiturazko lankidetzak aldarri eraldatzaileak oztopatzen dituela, eta langileek demokratikoki hautatutako gehiengo sindikalak indargabetu. Gainera, Elkarrizketa Soziala legitimatzen du, non patronalak beto eskubidea duen; eta iraunarazi egiten du euskal sindikalismoari bete-betean eta zilegitasunez langile-klasearen ordezkari izateko aukera galarazten dion negoziazio egitura bat. Noski, litekeena da ere sindikalismo estatalarekin unerren batean enpresa eta sektore jakinetan borroka eta aldarri konkretuei buruz bat etortzea. Hala izan da, eta etorkizunean ere izango da. Baina izango da unean unekoa eta eremu zein aldarri edo helburu konkretu bati lotuta.
266. Horregatik benetan deitoratzen dugu LABek, euskal gehiengo sindikaleko aktore nagusietako bat izanik, orain aliantza sindikal berri bat osatu nahi izatea estatuko sindikalismoarekin; honek zapuztu egiten ditu gehiengo sindikalak bi hamarkada luzeren buruan iritsitako lorpen handiak eta zilegitasuna. Zinez uste dugu LABek bere aliantza-politika berriz aztertu beharko lukeela.
267. ELAK ez du aliantza egonkorrik egingo bertan geure hitzarmenak negoziatzeko eskubidea ez defenditzeaz gainera estatu mailako hitzarmen miserableak sinatzeko estrategia areagotzen ari diren sindikatuarekin, CCOO eta UGT ari diren moduan, eta galarazten ari direnak Euskal Herriko langileek lan baldintzak hemen negoziatzeko aukera izan dezaten.
268. Besteak beste estatuko hitzarmenek bertan negoziatzea ez dezaten galarazi, aliantza bat lantzen ari gara Galiziako CIGekin eta Kataluniako Intersindicalekin; hau oso interesgarria eta potentzial handikoa dela deritzogu.

## **2. Alderdi politikoengandik independentea den artikulazio sindikal eta sozialaren alde**

269. Esan dugu pandemia aurretik Euskal Herrian berebiziko mobilizazio zikloa ari zela garatzen, hainbat erakunde eta mugimenduren aldetik:
- a) Mugimendu feminista zeinak beste lorpen askoren artean bi urtez martxoaren 8an deitutako bi greba feministetan modu garrantzitsuan mobilizatzea lortu zuena
  - b) Pentsiodunen mugimendua, Euskal Herrian zehar astero mobilizatu izan dena eta erabaki politiko ugari baldintzatu duena
  - c) Mugimendu ekologista, batez ere gazte jendearen artean indar handia hartu zuena, argi dagoenez ez dagoela B planetarik.
  - d) Gazte mugimendua, azken urteetan indar gero eta handiagoa erakutsi duena, prekaritatearekin eta klase-kontzientziarekin lotutako dinamiketan.
  - e) Mugimendu sindikala, 2015etik aurrera suspertzea indartu ahala mobilizazioa, gatatzak eta grebak areagotu zituen
  - f) Halaber, Eskubide Sozialen Kartak bere proposamen eta mobilizazioekin egindako ekarpena, azken urteotan erreferentziazko artikulazio sozial eta sindikala izan dena
270. 2020ko urtarrilaren 30eko greba orokorra borrokan artikulazioaren adibide izan zen. Enplegua, pensio publikoak eta bizi duinak izan ziren jarraipena izateko asmoa zuen



- dinamika hark. Pandemiak epe laburrean ekintzetarako aukera aldatu digu, baina inola ere ez gure lehentasunak. Greba hartako aldarriak inoiz baino biziago daude orain.
271. ELAren iritziz mugimendu sozial eraldatzaile guztiek ibilitako bideak adierazten du Euskal Herriko Eskubide Sozialen Karta eratzea arrakasta estrategikoa izan zela, bere pentsamendu eta ekintza zuen eremu sindikal eta sozial baten artikulazio zen aldetik, non egungo eredu ekonomiko eta soziala errotik eraldatzeko prest dagoen erakunde orok duen lekua. Baina eremu honek etorkizuna izango badu erakunde eta indar politiko guztiak interpelatu behar ditu Kartaren aldarri- eta mobilizazio-agenda aurrera eraman dezaten.
272. Aipatu beharrekoa da ere beste aliantza batzuetako gure partaidetza, esaterako Emakumeen Mundu Martxakoa edo Euskal Herriak Kapitalari Planto! Plataforma, baita euskararen inguruan egiten ari garen lana ere.
273. Halaber, gero eta tokiko erakunde sozial gehiago daude balio eta interes handiko lana egiten dutenak. Ekintza Sozialeko arlo berriaren garapenak haiekiko aliantzak errazteko aukera eman beharko luke.

### **3. Gure nazioarteko aliantza sindikalak**

274. Ponentzia honek proposatzen duen egungo ereduaren eraldaketa erradikalak eskatzen du nazioarteko planoan ere benetako kontrabotere bat eraikitzeke lan egitea. Horrenbestez, ELAk eutsi egingo dio aliantza berriak landu eta badituenak sendotzeko lanari, Europa zein mundu mailan, ezaugarri oso argiak partekatzen ditugun erakunde sindikal eta sozialekin batera, esaterako autonomia organizatiboaren, kontraboterearen aldeko jarrera, eraldaketa sozial eta ekologikoarekiko konpromisoa, edota herrien burujabetzaren aldeko borroka.
275. ELAk lehenetsiko dituen lan-eremuak izango dira interes eta borroka sindikal, feminista eta ekologistak bateratzen dituzten aliantza eta mobilizazioak. Hain zuzen, dinamika hauen adibide dira Europar Batasunak negoziatutako Merkataritza Akordioen aurkako aliantzak (esaterako Energiaren Kartaren Ituna, EB-Mercosur edo CETA), NBEko Enpresa Transnazional eta Giza Eskubideei buruzko Itun Loteslearen negoziazioaren ingurukoa, Alter Summit, edota Energia-Demokrazioaren aldeko Sindikatuak (TUED izen ingelesaz ezaguna), nahiz Palestinan justiziaren aldeko sare sindikala.
276. Kide garen nazioarteko erakunde sindikalekin lanean jarraituko dugu, gure kontrabotereko sindikalismoaren ikusmoldea adieraziz, giza eskubideekiko eta herrien eskubideekiko engeiatua, eta bereziki eredu sindikal bera duten sindikatu adiskideekin. Garenaren bidez mundu guztian zehar prestakuntza sindikaleko egitasmoak babestuko ditugu, lehentasunez beste erakunde adiskideekin batera. Proiektuotan parte hartzeak eta proiektuak garatzen dituzten erakundeetarako egiten ditugun misioek munduko beste eskualde batzuetako errealitate sindikala zuzenean ezagutzeko aukera ematen digute.